# elkarberri

# 81




# Fisioterapia ZIUn II. Jardunaldiak

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

2024ko urtarrila - ekaina / Doako alea
Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065






**Andrea Scolari**
Vocal del COFPV
*EFEO-ko batzordekidea*

editoriala

# Fisioterapia gizatiarrerantz

Badira itzala uzten duten irakasleak. Euskal Herriko Unibertsitatean, 2013tik 2017ra, nire Fisioterapia prestakuntza beren presentziarekin aberastu zuten pertsonak aurkitzeko zoria izan nuen. Aire freskoa ekarri zuten beren hurbiltasunarekin, prestutasunarekin eta, batez ere, gizatasunarekin.

Gizatasuna maitatzeko gaitasuna da, gainerakoak zaintzeko gaitasuna eta haien ongizateaz kezkatzeko gaitasuna. Hainbat baliok osatzen dute gizatasuna, besteak beste, enpatiak, errukiak, errespetuak, entzute aktiboak, ulermenak, tolerantziak eta elkartasunak. Izateko eta egiteko modu horrek bultzatzen du osasun-laguntza gizatiartzea. Ikuspegi integral horrek pazientea bere egoera klinikotik haratago aintzatesten du, eta aintzat hartzen du haren alderdi sozial, kultural eta emozionala. Hala, pazientea objektu, gaixotasun edo sintoma jakin batzuk izatetik pertsona bakar eta berezi izatera igarotzen da.

Egunetik egunera, gero eta argiago ikusten da Fisioterapia esku-hartzailetik ikuskera gizatiarrean oinarritutako Fisioterapiara igarotzeko beharra. Unibertsitateek aukera paregabea dute ikuskera hori beraien ikasketa-programetan txertatzeko eta gizakia bere lanaren erdialdean jartzen duten irakasleen presentzia sustatzeko.

Elkargoaren Batzarrean daramatzadan urte hauetan guztietan saiatu naiz, nola edo hala, irakasle horiei etorkizuneko fisioterapeuten alde egin zutena eskertzen. Prestakuntza eta hitzaldietan parte hartuz, beren eginkizuna ikusarazten jarraitzen dute, bai eta lanbidearekiko eta lanbidean aritzen direnekiko konpromisoa erakusten ere.

Haiei esker amaitu dugu karrera metodoz eta teknikez betetako erreminta-kaxarekin, baina baita gizaki gisa definitzen gaituen horretan, gizatasunean, oinarritutako Fisioterapia gauzatzeko moduarekin ere.

Beste behin ere, Ainara, Belén, Nerea, Raquel, Vanesa, MILA ESKER!!!

OCTUBRE 5 URRIA 2024

# I JORNADA DE FISIOTERAPIA ONCOLÓGICA EN PEDIATRÍA

Donostia - San Sebastián

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

## PROGRAMA

09:00 - 09:30 / INAUGURACIÓN

### BLOQUE I: INTRODUCCIÓN A LA ONCOLOGÍA INFANTIL

| | | |
|---|---|---|
| 09:30 - 10:00<br>Introducción a l oncología infantil<br>*Miguel García Ariza* | 10:00- 10:45<br>Frailty exacerbated by dexamethason<br>*Emma Verwaaijen* | 10:45 – 11:00<br>Mesa Redonda |

11:00 - 11:30 / COFFEE BREAK

### BLOQUE II: INTRAHOSPITALARIA

| | | |
|---|---|---|
| 11:30 – 12:10<br>Fisioterapia en tumores sólidos. A propósito de un caso: Terapia Manual. Preguntas del público<br>*Gemma Calaf Valls* | 12:10 – 12:50<br>Abordaje fisioterapéutico en patología hematológica infantil. A propósito de un caso: Ejercicios. Preguntas del público<br>*Denys Santa Marina Van Oudheusde* | 12:50 – 13:30<br>Unidad de Tumores Cerebrales pediátricos. A propósito de un caso: Desarrollo Neuromotor. Preguntas del público<br>*Sebastián Galas* |

13:30 - 15:00 / COMIDA

### BLOQUE III: REENTRENAMIENTO AL ESFUERZO Y EJERCICIO TERAPÉUTICO

| | | |
|---|---|---|
| 15:00 – 15:45<br>Ejercicio físico en población infantil con afectación onco-hematológica, a un paso de la nueva normalidad<br>*Andrea López Erdozain* | 15:45 – 16:30<br>La aventura del cáncer infantil, consejos que todo viajero debe conocer<br>*Ruben Menéndez Fernández y Araceli Gosende Vicente* | 16:30 – 16:45<br>Mesa Redonda |

### BLOQUE IV: PALIATIVOS Y DUELO PROFESIONAL

| | | |
|---|---|---|
| 16:45 – 17:15<br>Vivir hasta el final: El rol esencial de la fisioterapia en cuidados paliativos oncopediátricos<br>*Borja Recuenco Cayuela* | 17:15 – 17:45<br>Cuidarse para cuidar, más allá de la empatía. El duelo del profesional con el paciente oncológico infantil<br>*Àngels Ponce Ribas* | 17:45 – 18:00<br>Mesa Redonda |

17:45 - 18:00 / CLAUSURA

jornadaoncologiapediatricacofpv.com

SEFIP Sociedad Española de Fisioterapia en Pediatría

Aval científico de la SEFIP



# aurkibidea


3 editoriala
6 berriak
18 artikuloak
25 elkarrizketak
28 aholkularitza juridikoa
30 iragarkiak
34 elkargokide



**Lehendakaritza eta Zuzendaritza**
Iban Arrien Celaya
**Coordinación Koordinazioa:**
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Gauzatzea eta Maketazioa**
J&J Creativos
**Argazkigintza**
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Argitalpena**
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Hiruhilabeteko argitalpena**



**Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe. Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.**


**Elkargokideei emateko dohainezko alea**



# Batzar Nagusia

Apirilaren 6an, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren ekitaldi-aretoan (Donostia), urteko lehen Batzar Nagusia egin zen. Iban Arrienek, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko (EFEO) presidenteak, lanbidearen egoeraren laburpen xehatua egin zuen.

Besteak beste, nabarmendu zuen Euskadin duela gutxi onetsitako Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Profesionalen Legea maila nazionalean fisioterapeuten konpetentziak gehien babesten dituen araudia dela. Arrienek gogorarazi zuen lege horrek adibide gisa ere balio duela gainerako elkargoek eta Espainiako Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiak (EFEKN) administrazioei beren aldarrikapenak egiteko.

Bileran, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lehen mailako arretan eta osasun komunitarioan egiten ari den lan handia aipatu zen. Zenbait bilera egin dira Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuordearekin eta Lehen Mailako Arretako zuzendaritzarekin, eta azkenean lortu da Euskadiko Lehen Mailako Arretako Aholkularitza Kontseiluan Osakidetzako fisioterapeutaren figura sartzea. Haren zeregin nagusia da Osasun Sailari aholkularitza ematea osasunaren arloan esku hartzeko programak konfiguratzeko.

Gogoan izan behar dugu Euskadiko Lehen Mailako Arretako Aholkularitza Kontseilua Osasun sailburuak izendatutako kontseiluburuak, idazkariak eta 18 kidek osatzen dutela. 18 kide horietatik, zazpi Osasun Sailak berak proposatzen ditu, eta beste zazpi elkarte zientifikoek: Familia eta Komunitateko Medikuen Euskal Elkartea, Lehen Mailako Arretako Medikuen Espainiako Elkartea (Semergen), Medikuntza Geriatrikoko Espainiako Elkartea (Semeg), Euskadiko Familiako eta Komunitateko Erizaintzaren Zientzia Elkartea, Euskadiko Pediatria Elkartea, Euskadiko Emaginen Elkartea eta Euskal Herriko Pediatria Elkartea.

## Batzordeen lana

Ildo horretan, Batzar Nagusian jakinarazi zen abian jarri dela Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko Batzorde espezifiko bat. Haren helburua da, atal horietako kideekin batera, fisioterapeutentzako proiektu komun berritzaile eta erakargarriago bat diseinatzea, ikuspegi efizienteagoa duena eta kolektibo profesionala hobeto integratu eta inplikatzen duena.

Elkargoaren batzordeei dagokienez, 2023an batzorde horietan egin diren jarduera garrantzitsuenak aipatu dira. Azpimarratu da aurreko Batzarrean emandako ikerketarako laguntzen laburpena, bai eta 2024an laguntza horiekiko apustu irmoagoa egingo dela ere, banatzeko zenbatekoak asko handitu baitira. Ez dugu ahaztu behar Fisioterapia osasun-lanbidea dela, eta unibertsitateko diziplinen parte dela. Irakaslea tratamendu fisioterapeutikoetako azken aurrerapen eta berrikuntzei buruz eguneratuta egongo da, ikasleei informaziorik onena eskaini ahal izateko. Gainera, fisioterapeuta irakasleak dagokion esparruko ikerketako azterlan eta programetan parte hartuko du.

## Intrusismoa

Intrusismoaren gaia ere landu zen Batzarrean, tamalez lanbidea kaltetzen duen orbana baita. EFEOk konpromisoa du intrusismoaren aurka atsedenik gabe borrokatzeko. Eta halaxe adierazi du Elkargoko Instrusismo Batzordeak.

Bestetik, ‘STOP Lesiones Tempranas’/‘STOP Lesio Goiztiarrak’ hitzaldien proiekzioa aurkeztu da. Hitzaldien xedea da adingabeek dituzten lesioen bizi-inplikazioei buruz kontzientziatzea, eta agerian jartzea lesio horiek, oro har, ez dituztela osasun-profesional ofizialek tratatzen.

Komunikazio Batzordeak adierazi du elkargoaren irudi korporatibo berria plazaratuko dela. Irudi hori 2023ko Batzar Nagusian adostu zen. Logoa berritzearekin batera, joera berrietara egokitu nahi du elkargoak.

2023 ekitaldiko kontabilitate-balantzea aho batez onetsi zuten batzarkideek. Eta, azkenik, Iban Arrien presidenteak Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiaren barruan gauzatzen ari diren ekintza, estrategia eta proiektuen laburpen bat egin zuen.

***Komunikazio Batzordea***



# EFEOren urteko sarien lehenengo edizioak lanbidearen alde lan egiten duten pertsonen eta erakundeen lana aitortu nahi du

Sariak azaroaren 8an banatuko dira EFEOren Urteko Ospakizunean

EFEOk, azken urteetan banatu diren Fisioterapiako Euskadi Sarien egungo elkargo errealitatearen bilakaera gisa, Urteko Sarien lehenengo edizioa sortu du. Sari horien bidez, gure lanbidearen garapenean zenbait arlotatik lan egiten duten pertsona eta erakundeen lana aitortu nahi da.

Sari horietan, honako kategoria hauek daude:

- Urteko fisioterapeuta
- Fisioterapiari buruzko proposamen komunikatiborik onena, kazetari eta komunikabideentzat
- Gradu amaierako lan (GRAL) onenari saria
- FISIOLAGUN saria, Fisioterapiaren enpresa “lagunkoientzat”

Honako hauek dira sarion zenbatekoak:

- Urteko fisioterapeuta: 300 euroko prestakuntza-beka, garaikurra eta aitortza diploma.
- Fisioterapiari buruzko proposamen komunikatiborik onena: garaikurra eta aitortza-diploma.
- Gradu amaierako lan (GRAL) onenari saria: 300 euroko prestakuntza-beka, garaikurra eta aitortza-diploma.
- FISIOLAGUN saria: garaikurra eta aitortza-diploma.

Gehienez ere 7 kidek osatutako epaimahai profesional batek hautatuko ditu irabazleak. EFEOren Urteko Sarien I. edizioko epaia 2024ko urriaren 31n emango da eta azaroaren 8an jakinaraziko da, EFEOren Urteko Ospakizunaren egunean.

Irabazleei aurretik jakinaraziko zaie, lanarekin batera entregatutako gutun-azal itxiko zerrendan ageri den autoreari edo lehen autoreari berariaz zuzenduriko gutun baten bidez.

Informazio osoa eta Sarien oinarriak Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren webgunean daude eskuragarri: https://cofpv.org/doc/premios/bases_euskera_2024.pdf

Guztiok animatzen zaituztegu gure diziplinan eta haren inguruan egiten den lan bikaina ikusaraztea xede duten sari hauetan lagun egitera.

***Komunikazio Batzordea***

# Irudi berria, balio berberak

Kolektiboari eginiko makroinkestaren azterketan zehaztu dira hemendik aurrera entitatearen irudia osatuko duten logotipoa eta koloreak

EFEO kontziente da entitateen irudi korporatiboa ukiezin garrantzitsuenetako bat dela; izan ere, horrek sortzen ditu pertsonarengan lehen inpaktua, usteak eta itxaropenak. Eta, horrez gain, erakundea beraren irudi izateaz gain, bere balioen, lanbidearen eta Euskadiko kolektibo osoaren irudia ere badelako.

Logotipoa identitate bisual korporatiboko sistema osoaren unitate sintetikoena da, jabetza-zigilua, errubrika. Eta irudiaz gain, koloreek, formek, tipografiak, ikonografiak eta ildo bisual definitua izateak benetan laguntzen dute erakunde irudi solidoa eraikitzen.

Elkargoa jakitun da, halaber, munduaren etengabeko bilakaeraz eta joera berriez, eta, horregatik, aurreko urtean erabaki zen irudi berri bat bilatzea, zaharretik berrirako trantsizioa definitzeko, baina betiere elkargoaren identitatea mantenduz. Irudi berriaren xedea da egungo garaietara egokitzeko behar besteko eraldaketa irudikatzea.

Hori dela eta, eta aldaketarako bide hori guztion artean definitzeko xedez, kolektiboari zuzendutako makroinkestan jasotako iritzien azterketa sakona egin da. Azterketa horren emaitza gisa, 2023ko abenduko Batzarrean inkestako erantzunetara gehien hurbiltzen ziren hiru aukerak aurkeztu genituen. Eta horien artean zegoen hemendik aurrera Euskadiko fisioterapeuten irudia izango dena.

Irudiak EFEOren identitatearen bilakaera islatzen du, forma suabeagoak hartuta, eta erakundeak Euskadiko probintzietako bakoitzeko kolektiboarekin izan behar dituen interrelazioa eta sinergiak ulertuta.

Baina Elkargoaren 25 urte inguruko ibilbidearen indarra eta sendotasuna ere jasotzen du, erakundearen izaera albo batera utzi gabe. Hau da, gu guztiok irudikatzen gaituen irudia da.

***Komunikazio Batzordea***

# EFEOk dagoeneko euskal ospitaleetako Lanbide Garapena ebaluatzeko batzordeetan parte hartzen du

Gorliz, Galdakao, Basurto, Gurutzeta, San Eloy eta Txagorritxu ospitaleetako eta Goierri-Urola ESIko Lanbide Garapena Ebaluatzeko batzordeek Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko ordezkari baten laguntza izan dute. Leire Belarra, Euskadiko sektorearen gehiengoaren eskariei erantzuten dien kolektiboko idazkaria, batzorde horietan parte hartzeko arduraduna izan da, B1 talde edo kategoriako mailetako eskakizunen profilen arloan.

Besteak beste, Belarrak antolakuntza, plangintza eta arazoen irtenbidea balioetsi ditu, baita deialdira aurkeztu diren fisioterapeutek baliabideak erabiltzeko modua ere. Era berean, honako hauek kuantifikatzen lagundu du: erabiltzailearen harrera aplikatzeko orduan menderatze teknikoaren kalitatea, zaintzetarako eta pazientea eta ekipoak prestatzeko estandarrak, eta mailaketa proban bere burua aurkeztu duten profesionalen trebezia eta erabilitako prozedurak.

Horiez gain, beste unitateekin informazio-truke egokia, beste osasun-langile batzuen eskaeren erantzunaren egokitasuna eta lan-arloko gabezien identifikazioa ere ebaluatu da.

EFEOk aurkeztu diren maila gainditu duten profesionalak zoriondu eta lortu ez dutenei hurrengo deialdietara aurkeztera animatu nahi ditu. Azpimarratzekoa da gero eta fisioterapeuta gehiago ari direla ikerketa-lanak egiten eta horretarako lantaldeak egiten; Elkargoak, zalantzarik gabe, ildo hori bermatzen du, uste baitu onuragarria dela lanbide osoarentzat eta biztanleria orokorrarentzat.

Era berean EFEOk bere poztasun eta gogobetetasuna adierazi du, euskal ospitaleetako errehabilitazio-zerbitzuetan lan egiten duten fisioterapeutekin harremanetan egon ahal izateagatik. Elkargoak eskertu nahi ditu haien hurbiltasuna, begikotasuna eta hemendik aurrera elkarlanena aritzeko prestutasuna. “Arlo publikoan lan egiten duten kide guztiekin harremanetan jarraitzea espero dugu, eta hala izatea nahi dugu”, adierazi du EFEOko zuzendaritzak.

Bestalde, lanbide garapena ebaluatzeko batzordeetan EFEOren eta Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetzaren artean egondako lankidetzak agerian utzi du entitate bien arteko hurbiltasuna, eta lankidetzaz eta akordioez beteriko etorkizuna iragarri du.

***Leire Peña***



# Pediatriako Fisioterapia Onkologikoaren I. Jardunaldia

## Estatuan eta nazioartean haur eta gazteen minbizian erreferente medikoek hartuko dute parte topaketa honetan

Datorren urriaren 5ean Pediatriako Fisioterapia Onkologikoko I. Jardunaldia hartuko du Donostiak. EFEOk antolatutako topaketa honen helburua izango da aztertzea fisioterapeutak haurren eta gazteen minbiziak tratatzen dituen diziplina anitzeko taldeko kide gisa eta minbiziaren ondorioak prebenitzeko eta arintzeko herritarren sektore horretan funtsezko figura gisa duen zeregina.



Fisioterapia funtsezko osagaia da minbizia duen haurrari arreta integrala emateko; izan ere, gaixotasunak eragin nabarmena du adingabeak tratamenduan jasaten dituen urritasun fisikoetan, eta horrek haren etorkizuneko garapena baldintza dezake.

Espainiako Pediatriako Fisioterapia Elkarteak (Sefip) Euskal Herrian duen lankidetzari esker, Donostian egongo dira gai horretan estatuko eta nazioarteko aditu onenak. Zalantzarik gabe, anbizio handiko jardunaldia izango da horrelako pazienteak bideratzen dituzten ospitale-zerbitzuetako, elkarteetako edo arreta goiztiarreko zentroetako fisioterapeuta guztientzat.

Hitzaldietan, Vall d 'Hebron, Sant Joan de Deu Ospitalean eta Bartzelonako Pediatric Care Centerren egiten diren tratamenduen berri emango da, baita Madrilgo Niño Jesús Ospitalean eta Utrechteko (Holanda) Princess Maximum Centre-n egiten diren tratamenduen berri ere, azken hori erreferente da Europa mailan minbizia duten haurren tratamenduan eta errehabilitazioan. Hirugarren Sektoreko esperientzietatik ikasteko aukera ere egongo da, Botón de Asturias Fundazioaren eskutik.

Zainketa aringarriek kolektibo horretan duten zeregina ere jorratuko da hitzaldietan, minbiziaren etapa bakoitzaren barruan hainbat esku-hartze egiten baitira, batez ere tumorearen kokapenaren arabera. Era berean, profesionalen dolua aztertuko da, kasuetan asistentzia eta inplikazioa hobetu ahal izateko.

Fisioterapiak paziente-mota hori hobeto sendatzeko ekar ditzakeen onurak aski ezagunak badira ere, azterketa berriek muskulu-ahultasunaren detekzio goiztiarra hobetu nahi dute. Fisioterapiaren helburua da tratamenduak eraginkorragoak izatea, eta erabiltzaile bakoitzaren egoera berezietara hobeto egokitzea; izan ere, komeni da haurrak tratamendu medikoaren aurretik, bitartean eta ondoren egiten duen ahalegina neurtzea. Arreta-gunea ez da soilik bizirauteko desioan zentratzen, baizik eta ahalik eta bizi-kalitate handienarekin bizitzean.

Hori guztia familiak eta txikien ingurune hurbila ahaztu gabe. Fisioterapeutak ingurune hori funtsezkotzat hartu behar du tratamenduak irauten duen bitartean, adingabeentzako helburu motibatzaileak eta kalitatezkoak markatzeko.

EFEOren ustez, beharrezkoa da ezagutzak partekatzea eta sinergiak sortzea lanbidearen barruan eta kanpoan, ikerketek eta ebidentzian oinarritutako praktikek aurrera egin ahala, fisioterapiako profesionalek bere esku-hartzea eskatzen duten diziplina anitzeko unitate guztietan parte hartu ahal izan dezaten.

***Komunikazio Batzordea***



# Fisioterapia minbiziaren fase guztietan nekea, mina eta erortzeko arriskua murrizteko

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO) gonbidatuta, joan den ekainaren 14an, María López Garzón Granadako Unibertsitateko Fisioterapian doktoreak hitzaldi ireki bat eman zuen Donostian, prozesu onkologiko baten ondorioetan —egindako kirurgiaren, kimioterapiaren edo erradioterapiaren ondorioz— fisioterapiak duen garrantzia gogorarazteko.

Fisioterapia onkologikoko saioen helburua da ehunen mugikortasuna eta elastikotasuna berreskuratzea, larruazala, orbainak, artikulazio- eta muskulu-arazoak, sentikortasuna, jarrera-arazoak eta mina eta nekea landuz; askotan azken bi albo-ondorio horiek ez dira tratatzen “normaltzat” hartzeagatik.

Mintzaldian zehar, halaber, min onkologikoa deiturikoaz hitz egin zen, minbiziaren lehen faseetan % 40 arteko prebalentzia duen sekuela. Prozesua larriagotu ahala, % 70eraino igotzen da, eta % 90eraino fase terminaletan. Nekea albo-ondorio gisa agertzen da minbiziaren aurkako hamar tratamendutik zortzitan, eta tratamendua amaitu eta aste edo hilabete batzuetara ere gerta daiteke.

Pazienteengan eragozpen ugari eragiten dituzten beste sintoma batzuk neuropatiak eta zoru pelbikoaren disfuntzioak dira. Eta, bestalde, kontuan izan behar dira tumoreek eragindako asaldura motorrak, erortzeko arriskua areagotzen baitute, batez ere adineko pertsonen kasuan. Egoera guzti horietan bizi-kalitatea hobetzeko esku har dezakeen fisioterapeuta bat dago, gogoratu zuen López Garzónek.

### Gezurtatutako usteak

Hitzaldiak oso hedatuta zeuden zenbait uste gezurtatzeko ere balio izan zuen, hala nola edozein masaje mota ondo datorkiola minbizia duen pazienteari, eta eskuzko drainatze linfatikoaren (EDL) teknika ezagutzeak ez duela fisioterapeuta prozesu onkologikoetan aditu bihurtzen. Gainera, minbizi-arrisku handia duten pazienteei zuzendutako ariketa fisikoko programak ezagutarazi ziren.

Amaitzeko, nabarmendu zen minbiziak haur eta nerabeengan duen eragina desberdina dela, bai aplikatzen diren tratamenduen ezaugarriengatik, bai adingabearengan eta haren familia-ingurunean duen inpaktuagatik.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala konprometituta dago prozesu onkologikoaren fase guztietako prestakuntzarekin. Horren erakusgarri da ekainaren 14an antolatutako topaketa hori eta antzeko beste bat, kasu honetan Pediatriako Fisioterapia Onkologikoari buruzkoa, urriaren 5ean Donostian ere egingo dena.

***Komunikazio Batzordea***






# Fisioterapiaren zeregin erabakigarria ZIUn, mota guztietako paziente kritikoen arnasketa eta suspertze funtzionalerako

## EFEOk 200 profesional bildu ditu Donostian, ospitaleko zerbitzu horretan alderdi profesional hori aldarrikatzeko

*Fisioterapiak eragin nabarmena du ZIUn urritasun fisikoak, funtzionalak eta arnasketa-gabeziak lantzean*

*Fisioterapiak hobetu egiten du independentzia funtzionala, ahalbidetu egiten du ZIUren ondorengo suspertze-aldirako trantsizioa arinagoa izatea, eta murriztu egiten du epe luzerako desgaitasuna*

*Frogatuta dago murriztu egiten duela ospitaleratutako pertsonetan aireztapen mekanikoko egunak eta harekin lotutako arazoak izateko arriskua*

*Mobilizazio goiztiarrak eta arnas-fisioterapiaren esku-hartzeek lagundu egiten dute ZIUko ospitaleratze-egonaldia murrizten, eta, ondorioz, murriztu egiten dira osasun-kostuak eta optimizatu egiten da baliabideen erabilera*

Errealitate horretatik abiatuta, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO), Deustuko Unibertsitateko Osasun Zientzien Fakultateko Fisioterapia Sailarekin batera, ZIUko Fisioterapiako II. Jardunaldia antolatu zuen maiatzaren 24an eta 25ean, Donostiako campusean. Xedea zen zainketa intentsiboen unitateko (ZIU) diziplina anitzeko taldeko kide gisa fisioterapeutak mota guztietako paziente kritikoekin egiten duen esku hartzearen garrantzia azpimarratzea.

Berrehun fisioterapeuta baino gehiago bildu ziren gai hori jorratzeko programa emankor honetan. Osakidetzako Ospitaleko Arreta Koordinatzeko zuzendariorde Ana Bustinduyk inauguratu zituen jardunaldiak. Zuzendariordea bertan egoteak agerian utzi zuen, beste behin ere, EFEOren gogoetek interes handia sortzen dutela bai osasun-kolektiboaren artean, bai goi-erakundeen eta agintari politikoen artean ere.

Hasteko, Bartzelonako Clinic Ospitaleko fisioterapeuta Daniel Martíren 'La ventilación mecánica como herramienta para potenciar la fisioterapia'' hitzaldia entzuteko aukera izan genuen. Berak ohartarazi zuen lehenengo aldiz "inork ez digula esaten nola aireztatu behar ditugun gure pazienteak". Jarraian, honako hauen hitzaldiak izan genituen: Madrilgo Henareseko Unibertsitate Ospitaleko mediku espezialista intentsibista Federico Gordoren 'Asincronías, qué son y cómo manejarlas'; eta Sabadelleko Parc Taulí Ospitaleko Pneumologiako mediku espezialista senior Manel Lujánen 'Ventilación mecánica no invasiva y alto flujo en la unidad de críticos y semicríticos', zeinak xehetasun garrantzitsu bat eman zuen: "Haizagailua pazienteari egokitu behar zaio eta ez alderantziz".

Etenaldi baten ondoren, Valentziako Erkidegoko La Ribera Unibertsitate Ospitaleko fisioterapeuta Majo Segrerak hartu zuen parte, eta "weaning" pozesuaren zailtasunak argitu zituen. Prozesu hori intubazioa eragin zuen kausa hobetzen denean hasten da.  Francisco José Clemente, Tenerifeko Nuestra Señora de Candelaria Unibertsitate Ospitaleko erizaina, berriz, 'Válvulas fonatorias y ventilación' gaiaren inguruan aritu zen. Bere esperientziaren arabera, "fonazio balbulak oso elementu baliagarriak izan daitezke gure pazienteen tratamenduan".

ZIUko Fisioterapiako II. Jardunaldien lehen egunaren amaieran, Fisioterapia Pediatrikoaren inguruan aritu ziren. Honako hauek hartu zuten parte: Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zainketa Intentsibo Pediatrikoen Unitateko (ZIPU) mediku ondoko Yolanda López, zeinak 'Contexto asistencial de la UCI pediátrica' azaldu zuen; eta Bartzelonako Sant Joan de Deu Ospitaleko arnasketa-fisioterapeuta pediatriko Enric del Campo, zeinak 'Adaptación de asistente mecánico a la tos en edad infantil' hitzaldia eman zuen. Lehenak gogorarazi zuen "ZIU pediatriako baten testuingurua eta helduen ZIUarena ezberdinak izanik ere, helburua bera dela". Tailer praktiko bikain batzuek osatu zituzten EFEOk hilaren 24an antolatutako hitzaldiak.

Hitzaldien bigarren egunean, Vigoko Álvaro Cunqueiro Ospitaleko fisioterapeuta Ricardo Rodríguesek honako hitzaldi hau eman zuen: 'Papel del fisioterapeuta en el destete de la ventilación mecánica invasiva (VMI)'. Gogorarazi zuen "intubazioaren helburu nagusia dela hodi hori lehenbailehen kentzea". Belgikako Errehabilitazio eta Fisioterapia Zientzietako fisioterapeuta Diego Poddighek, berriz, 'Musculatura inspiratoria en el paciente crítico' gaiari buruz hitz egin zuen.

Bestalde, Bartzelonako Universitari Vall d 'Hebronde Ospitaleko fisioterapeuta Bernat Planasek 'Manejo de secreciones en el paciente intubado' hitzaldia eman zigun eta gaineratu zuen "aireztapen mekanikoak eragin zuzena duela diafragman". Michelle Chatwin-ek, Londresko NHSko Real Brompton eta Harefield Fundazioko fisioterapeutak, bideokonferentzia baten bidez, 'Asistencia respiratoria en pacientes críticos: el papel del fisioterapeuta' gaiarekin zerikusia duen guztia aztertu zuen.

Eguneko lehenengo hitzaldi horietan gertatutakoaz hitz egiteko baliatu zuten etenaldiaren ondoren, Roberto Martínezek, Sao Pauloko Unibertsitate Federaleko doktoratu ondoko bekako fisioterapeutak, 'Experiencia post-doc del fisioterapeuta en críticos' hitzaldia eman zuen jardunaldiaren amaieran. DYNAMICS Errealitate birtualeko fisioterapeuta Javier Guerrak, berriz, 'Nuevas tecnologías en UCI: Realidad Virtual en UCI' gaiari buruz hitz egin zigun eta jakinarazi zigun "berritzea dagoen arazo bati irtenbidea ematea dela".Azkenik, Xabier Pilarrek 'Nuevas tecnologías en UCI. Electroestimulación diafragmática y músculos periféricos' aztertu zituen eta berriro azpimarratu zuen "helburu nagusietako bat dela pazienteari aireztapen mekanikoa ahalik eta lasterren kentzea".

Topaketak balio izan zuen ZIUn fisioterapeutak egoteak zer-nolako garrantzia duen erakusteko. ZIU pazienteei eguneko 24 orduetan laguntza intentsibo integrala emateko zerbitzua da, eta funtsezkoa da baliabide guztiak koordinatzea mota guztietako paziente kritikoei kalitateko laguntza eman ahal izateko. Paziente kardiologikoetatik hasi eta paziente politraumatizatu eta ebakuntza ondorengo konplikatuetaraino, fisioterapeutak funtsezko zeregina du azkar senda daitezen.

***Komunikazio Batzordea***



# Sektoreak ez du irakaskuntza ez-arautuaren araudirik: existitzen ez diren titulazioak eta profil profesionalak

## Balio akademiko ofiziala duen titulurik ematen ez duten irakaskuntzak ematen dituzten zentro pribatuen erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautuko duen dekretu berria egiteko prozesuan aholkua ematen du EFEOk

Masajeen eta eskuzko terapien edo terapia naturalen akademia ez-ofizialak intrusismo profesional sanitarioaren sorlekua dira fisioterapiak lanbide gisa duen eskumen-esparruan. Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO) urte askoz eskatu du “irakaskuntza-askatasuna” izenekoan oinarritutako prestakuntza-produktu bat eskaintzeko duen eskubide legitimoa ez dela oztopo bere egiaztapen-diplomen benetako mugak eta, azken batean, saltzen duten produktuaren mugak eta balioa erabat eta gardentasunez bermatzeko.

Egoera hori hobeto ulertzeko, gogoratu behar da 2018ko azaroan Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa-EKErekin batera, EFEO Nora Abetekin bildu zela —garai hartan KontsumoBIDE-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendaria zena— hezkuntza-sektoreko enpresek bideratzen dituzten publizitate-kanpaina masiboen inguruan partekatzen zuten kezka sakona salatzeko eta eztabaidatzeko. Marketin-jarduketa oldarkorrak zirela eta iruzurrezko komunikazio-tresnak erabiltzen zituztela adierazi zen, erabiltzaileei “arrakastazko etorkizun profesional” bat hitzematen zien mezu gezurtiez beteak.

Kontuan izan behar da zentro horiek ez dutela dagokion administrazio-baimenik osasunarekin lotutako hezkuntza-eskaintzen inguruko publizitatea egiteko. Gainera, existitzen ez diren eta nahita engainagarriak diren lanbide-profilen izeneko ikasketak eta titulazioak eskaintzen dituzte.

Osasun arloko Lanbideen Antolamenduaren Legearen aurka doazen egoerak eta esperientzia klinikoak promesten dituzte eta Legearen aurka doazen sustapena erabili eta “lan-irteera” konpromisoa ematen dute; are gehiago, logotipo instituzional ofizialak erabili eta ustiatzen dituzte, zabaldutako produktuaren ziurtatze eta zilegitasun faltsu bat eskuratzeko asmoz.

Halaber, osasun zientzien arloko hezkuntza-edukiak eta irakaskuntza-programak saltzen dituzte, eta, hortaz, ez dago zentro horietara prestatzera joaten diren erabiltzaileek iragarritako titulazioen eskumen-mugak ezagutu gabe edo estrategia terapeutiko pseudozientifikoekin lotutako ikastaroen hedapena ezagutu gabe sartzea ekiditen duen informaziorik.

EFEOk eta Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak beste behin salatu nahi du kontsumo-eremu horren gardentasun, zehaztasun eta egiatasunik eza. Produktu horietara ziurtasun osoarekin eta segurtasun juridikoarekin sartzeko kontsumitzaileek duten eskubidea urratzen duten publizitate iruzurtia nagusi da. Eta horren guztiaren ondorio gehigarri gisa, “sasi-profesional diplomatu” horien zerbitzuak eskuratzen dituzten herritarren osasun-prebentzio eta zaintzako eta sustapeneko oinarrizko eskubidearen aurka egiten duela.

Duela sei urte, bi erakunde salatzaileek dokumentu luze batean islatu zen eskaera formal bat egin zioten KontsumoBIDE-Kontsumoko Euskal Institutuari. Analisi horretan deskribatutako egoera adierazi zuten eta horren larritasuna islatzen zuten adibideak eman ziren. Halaber, era horretako hezkuntza-produktuen erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautzeko dekretu berri bat garatzeko eta prozesu arauemaile bat aktibatzeko beharra jasotzen duen proposamen formala ere zuen.

Hiru urte beranduago, 2021ean, egoera hori erregulatzeko Kontsumoko Euskal Institutuak egindako lehenengo saiakeraren lekuko izan ginen. 2021eko irailaren 2ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez jendaurreko kontsulta egiten baitzen lotutako dekretu-proiektua egin aurretik. EFEOk prozesu horretan parte hartu zuen eta 2018an argudiatutako guztia azpimarratzen eta berresten zuen txosten berri bat helarazi zuen.

Isiltasun-garai luze baten ondoren, KontsumoBIDEko zuzendaritza berriari bidalitako arrakastarik gabeko bi dei egiteko saiakeraren ondoren, 2023ko irailaren 15ean Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian aurretiazko kontsulta-prozesu berriaren berraktibatzea argitaratu zen, eta beste behin, EFEOk bere alegazioen txostena aurkeztu du. Txostena honako esteka honetan dago: https://cofpv.org/doc/Alegaciones_COFPV_octubre_2023_EU.pdf

2024ko otsailaren 1ean, Roberto Romerok, EFEOko zuzendari teknikoak, Jesús María García de Cosekin biltzeko aukera izan zuen —Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza sailburuordea eta KontsumoBIDE- Kontsumoko Euskal Institutuko (jarduneko) zuzendaria—. Bilerak bi ordu inguruko iraupena izan zuen eta, besteak beste, EFEOren aldarrikapenak helarazteko eta fisioterapiaren arloko intrusismoaren inguruko salaketaren ibilbide historikoa azaltzeko balio izan zuen. Horretaz gain, duela gutxi aurkeztu zen txostenaren azalpen xehatua emateko eta, azaldu den moduan, Elkargoak eskatzen duen araudi aldaketaren proposamena azaltzeko baliatu zen.

Bestalde, bileran Auzitegi Gorenaren 3993/2021 Epaiaren edukiaz ere jardun zen, jurisprudentzia-garrantzia baitu. EFEOk uste du “are gehiago bideratu eta mugatu behar dela osasun-arazoei aurre egin edo aurrea hartu nahi dieten eskuzko terapien eta beste edozein tresnaren ikaskuntzarekin eta praktikarekin modu batera edo bestera lotura duen edozein erregulazio”.

Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza sailburuordearen hitzetan, helburu terapeutikoa duten gaiak arautu gabeko esparru batean irakasteak “ez du zentzurik era horretako epai batekin”. Are gehiago, errepikatzen du, “lanbide-heziketara orientatzen eta gonbidatzen duten eta engainu bidez gaitzen duten” publizitate-mezuekin sostengatzen eta osatzen denean. Horri dagokionez, EFEOk argudiatzen du beharrezkoa dela hezkuntza-askatasunerako eskubide konstituzionalaren benetako aplikazioa mugatzea, profesionalei eta herritarrei segurtasuna emateko xedearekin.

Iritzi eta argumentuen trukearen ondoren, Eusko Jaurlaritzak eskerrak eman zituen egindako lanagatik eta EFEOk emandako informazioagatik. Eta halaber, etorkizuneko dekretu arautzailea idaztean proposatutako aldaketak eta edukiak aztertzeko konpromiso irmoa hartu zen.

***Zuzendaritza Teknikoa***



# Familien presentzia fisioterapia-saioetan

## Fisioterapeuten kolektiboak gogorarazi du oso garrantzitsua dela AGBTetan profesionalak sartzea



2023ko irailaren amaieran 2023 eta 2024rako Bizkaiko Arreta Goiztiarreko zerbitzua ituntzeko baldintza berrien deialdia argitaratu zen, eta EFEOren baitan sumindura sakona eta gehiengoduna piztu zuen. Arreta goiztiarreko balorazio-taldeetan (AGBT) espezializatutako fisioterapeutak egoteari behin eta berriz uko egiten zitzaion, eta premia motorren identifikazioa eta esku-hartze fisioterapeutikoen “preskripzioa” fisioterapiatik kanpoko beste diziplina eta profesional batzuen esku utzi zen. Horrez gain, esparru zurrunak ezartzen ziren eta zainketak ematen ziren bitartean negoziatu gabeko lan-dinamikak ezartzen ziren.

Egoera hori argitzeko, EFEO Euskal Herriko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin (EHAGPE) eta bere kontsultetan adingabeak tratatzen dituzten elkargokideekin bildu zen beren iritziak ezagutzeko. Halaber, EFEOk Bizkaiko Foru Aldundia gai horren inguruan hitz egiteko deitu zuen.

Bi aldeen arteko bilera otsailaren 28an egin zen. Bertan, ordezkarien bidez, euskal fisioterapeuta elkargokideek aukera izan zuten beren kezkak eta jasotako kexekin eta egonezin askoren erabateko konbergentzia helarazteko. EFEOren iritziz, argitaratutako zenbait baldintzak erakusten dute “*esku-hartze planen protagonista den kolektiboarekiko testuinguru profesional mugatzailea eta konfiantzarik gabea*” dagoela arreta soziosanitarioaren arlo horretan. Ezarritako zenbait baldintzak esku-hartze taldeen protagonistak diren kolektibo horien duintasuna eta beharrezko autonomia profesionala erasotzen dute.

EFEOk azpimarratu zuen hartutako zenbait erabaki “desegokiak” zirela eta “arreta-esparru horretan zerbitzuak ematen zituzten lanbideak desnaturalizatzen” zituela. “*Esku-hartze taldeen eginkizuna kanpoan diseinatutako arauak betetzera murrizten duzue, horien praxia jardun teknikora eta hitzarmenaren esparru negoziaezinean ezarritako zenbait irizpide zorrotz betetzera murriztuz*”, adierazi zuen Iban Arrienek, EFEOko lehendakariak.

Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailaren Autonomia Pertsonala Sustatzeko Arloak, bere aldetik, azpimarratu zuen “*enfasi handiagoaz*” adierazitako irizpideek estatu-mailako eta nazioarteko legerian oinarritzen direla “*esku-hartzeetan familiak bertan egoteko betebeharra*”, besteak beste. Hau da, “*familiak saioetan bertan egoteko berariazko betebeharra zehaztearen*” arrazoia dela “*dagoeneko ezarrita zegoen*” eta betetzen ez den irizpidea izatea. Hala, “*politika kontinuisten*” inguruan egin zuten hitz; izan ere, “*ez da irizpide berri bat*”, ezarritako eta ezarri daitekeen irizpide bat idatziz jasotzea baizik. Eta arrazoi beragatik, “*AGETek dagoeneko jakin beharko lukete esku-hartze eredu horren garrantzia, non familiek rol protagonista hartzen duten*”.

Azpimarratu zuten, beharbada, eta “*senideen kexei*” erantzunez, zentro askok beharrezko lan-dinamika hau “*gomendioen esparruan*” zegoela ulertu zutela, eta beste askok ez zutela inoiz betetzen “*arretarik jaso ez dutela sentitu diren familia gehiegi*” baitaude (% 50az hitz egin zen, baina ez zen datu objektiborik eman). Aldundiko arduradunek adierazi zuten zentro askok bikain lan egiten badute ere, “*guztiek ezin dutela berdina esan*” eta aldundiko Ikuskaritza Sailaren esku-hartzea behar izan zuten hainbat kasu aurkeztu zituzten adibide gisa.

Identifikatutako jardunbide desegokien artean, azaldu zuten zenbait fisioterapia-zentrok “*kopiatu eta itsatsitako dokumentu bat erabiliz*” salbuespena eskatu dutela “*haur guztien*” saioetara senideek laguntzeko beharrari. “*Ez dugu onartuko eta ez gaude prest zentzurik ez duen txosten bat adin txikikoen historian gehitzeko*”, adierazi zuten.

Bestalde, aipatu genien “*arreta goiztiarreko sarean tratatu daitezkeen erabiltzaileen kolektiboaren sektore txiki bat ospitale-eremuetara bideratzen ari direla mugimen-arazoei aurre egiteko*”, eta, hortaz, ez direla betetzen esparru Dekretuaren aginduak, egiturazko irizpideei eta irizpide funtzionalei dagokienez. Horren inguruan Aldundiak adierazi zuen egoera hori oso gutxitan gertatzen dela eta, edonola ere, Osakidetza Dekretuak berak jasotzen dituen hiru zutabeen barruan sartzen dela, Hezkuntzarekin eta AG laguntza-sarearekin batera: “*Erabakia AGBTa osatzen duten lanbide-taldeen iritziak entzun ondoren hartzen da, adin txikikoaren interesei lehentasuna emanez eta kostuak aurrezteko edo antzeko irizpideak kontuan izan gabe*”.

Haurren zainketa eta arreta osatzen duten hainbateko elementuen inguruko iritzi, interpretazio eta gomendioen trukeak agerian utzi zuen komunikazio-defizit probablea zegoela. Hala ere, Elkargoak honako hau balioetsi zuen: “*arreta- eta zaintza-zerbitzuak asistentziaren kalitate goreneko irizpideen arabera ematen dituen kolektibo batez ari gara, eskura dagoen ebidentzia zientifikoaren ikuspegi egokia errespetatzen duenaz, erabiltzailearen segurtasuna, behar den zuhurtzia eta gaitasun profesionala bere eguneroko lanaren adierazle nagusitzat hartuz*”. *Eta hori dela-eta iritzi dela “giza kalitatearen, kalitate teknikoaren irizpideen eta eraginkortasun eta efizientzia handienaren irizpideen arabera ematen den zaintzak merezi duela Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren aldetik konfiantza handiagoa, baita politika soziosanitarioen diseinuan eta garapenean baterako partaidetza zuzenaren esparruan arau-estrategiak hartzea ere, zerbitzuen prestazioan eragiten edo aldaketak eragiten dituztenak”.*

Autonomia pertsonala sustatzeko zuzendaritzak barkamena eskatu zien “*Iraunkorreko kideei, funtzionamendu-aldaketak azkar egin eta argitaratu behar izan genituelako, baina ez dirudi nahikoa izan denik*”. “*Zentroei laguntza eskaini zitzaien zuzenketa-estrategiak jarri eta ezartzeko*” adierazi zuten, baina jaso zuten erantzuna “*berrogei esku-hartze zentrok sinatutako errekurtsoa izan zen, aurretiazko abisurik gabe*”.

Bi alderdien artean denbora luzez iritziak trukatu ondoren, bileraren azken minutuetan Dekretuaren garapena aztertu zen, zeinbait alderdi orokor azpimarratuz, hala nola hiru lurraldeen arteko inplementazio asimetrikoa eta desberdina, eta haien testuingurua eta arau-esparrua egungo errealitatera eguneratzeko beharra. Amaitu aurretik, EFEOk eta Aldundiak “*kolaboratzeko eta elkarlanean aritzeko aurretiko jarrera eta konpromiso instituzionala*” mantentzeko konpromisoa hartu zuten “*zerbitzuaren eta bi alderdien onurarako*”.

***Zuzendaritza Teknikoa***

# Fisioterapia onkologikoa: lagun handia minbizian

Eugenia Olloquiegui Aristegui - Elkargokidea 2.931 EFEO

Fisioterapia onkologikoa hazten ari den fisioterapiako adar bat da, gero eta jende gehiagok duelako minbizia, biziraupen-tasa gero eta handiagoa delako eta tratamenduen albo ondorioengatik. 1980an erakutsi zuen Maryl Winningham-ek (AEB) bularreko minbizia zuten emakumeek ariketa terapeutiko aerobikoen programa bat egin eta bizi-kalitatea asko hobetu zezaketela. Orduz geroztik, arlo onkologikoko ariketa terapeutikoari buruzko ikerketa gehiago egin dira eta, azken hamar urteotan, 'ariketa' eta 'minbizi' hitzak dituzten 12.007 artikulu zientifiko aurki ditzakegu Pubmed plataforman. Gainera, fisioterapia onkologian tratamendu eraginkor eta segurua dela ikusi da, minbiziaren aurkako tratamendu medikoen albo ondorioei aurre egiteko.

Fisioterapia onkologikoaren egiteko nagusia da prozesu onkologikoan diren pazienteen mugimendua eta ongizatea maximizatzea, gaixotasunaren unea dena delakoa izan arren, pazientea heztearen bidez, pazientearekin lankidetzan, inbolukratuta eta segurtasunarekin. Fisioterapeutok jarduera fisioterapikoari adi egon behar dugu medikazioan aldaketak daudenean, sintomak eta albo ondorio berantiarrak (adibidez, neuropatia periferikoak edo oreka-arazoak) kontrolatzeko; pazienteen programa fisioterapeutikoetan helburu argiak finkatu behar ditugu eguneroko bizitzako jardueretarako (adibidez, lanera itzultzea) eta ariketa fisikorako, eta bizi-estilo osasuntsua sustatu eta hezi behar dugu, bigarren mailako prebentziorako eta epe luzera pronostikoa hobetzeko.

Zentzu horretan, fisioterapiak zenbait onura eskaintzen ditu:

- Tratamenduaren aurreko fasea: pazientea eta haren ehunak prestatu. Fase honetako onura nagusiak dira muskuluen uzkurdurak saihestea, indarra galtzeari aurre hartzea eta epe luzera bizi-ohitura aktiboak ezartzea.
- Minbiziaren tratamenduan: albo ondorioak prebenitzea, saihestea edo maneiatzen laguntzea sistema kardiobaskularrean, muskuloeskeletikoan eta nerbiosoan. Honako hauek dira helburu nagusietako batzuk: sarkopenia saihestea, nekea maneiatzea, muskuluen uzkurdura eta atxikidurak saihestea kirurgia ondoren, linfedema saihestea, neuropatiak saihestea eta oreka lantzea.
- Tratamenduaren ondoren: tratamenduen osteko albo ondorioak arintzen laguntzea, eguneroko bizitzako jardueretara itzultzeko, eta bizi-estilo aktiboa sustatzea. Fase honetan albo ondorioak maneiatu beharko ditugu, esaterako, linfedema, orekaren nahasmenduak eta hausteko arriskua, indar- edo artikulazioetako mobilizazio-falta, mina, biriketako gaitasunaren gabezia, neuropatia periferikoak, disfuntzio sexualak...

KIRURGIA BATERAKO PRESTATZEN LAGUNTZEN DU

ARTIKULAZIOEN MUGIKORTASUNA ETA MUSKULUEN INDARRA HOBETZEA

TRATAMENDUAREN OSTEAN EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUEREI BERRIRO EKITEN LAGUNTZEN DU

TRATAMENDUEN ALBO-ONDORIOAK PREBENITZEN DITU

KIMIOTERAPIAN ZEHAR FUNTZIO FISIKOA HOBETZEN DU

MINA ARINTZEN DU PROZESUAN ZEHAR ETA OSTEAN

KIRURGIEN ETA ERRADIOTERAPIAREN OSTEAN EHUNAK KONPONTZEN DITU

BIZI-KALITATEA HOBETZEN DU



Pazienteen hainbat behar asetzeko, beharrezkoa da taldeko lana eta onkologian espezializatutako profesionalen sare ona izatea. Era beran, mediku taldeak parte hartu beharko du ongizatearen mesederako, eta profesional medikoei eta soziosanitarioei (fisioterapeutak, nutrizionistak, psikologoak, etab.), pazientearen historial medikoa eskaini, honako hauen berri izan dezaten: tumorea, egungo medikazioa, kirurgia-mota, hedapena, dituen edo izan ditzakeen albo-ondorioak, eta indikazioak edo kontraindikazioak. Horri esker, erasandakoaren beharrak aseta geratuko dira prozesu onkologikoan eta antzeko prozesu zail eta luzeetan.

*Eugenia Olloquiegui Aristegui*
*Elkargokidea 2.931*



# Feldenkrais Metodoaren Sarrera-Ikastaroa Fisioterapeutentzat

Vanesa Polo Saborido - Elkargokidea 1.083 EFEO

Azken hilabeteetan, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialean, Bilbon, Feldenkrais® metodoaren bi sarrera-ikastaro egin ditugu.

Martxoaren 9an eta 10ean eta ekainaren 1ean eta 2an egin ziren, eta Vanesa Polok eta Fernando Izaguirrek eman zituzten elkarrekin. Biak dira fisioterapeuta diplomadunak eta irakasle egiaztatuak.

Ikastaro praktikoak izan dira batez ere, eta parte-hartzaileek Autoconciencia por el Movimiento® atalaren zenbait irakasgai esperimentatu (metodoaren talde modalitatea) eta Integración Funcional® atalaren oinarrizko zenbait nozio ikasi ahal izan zituzten (banakako modalitatea, metodoaren eskuzko lana da).0 Esparru eta oinarri teorikoak modu progresiboan landu ziren, esperientzia hedatzen zen neurrian. Parte-hartzaileek feedbacka, hausnarketa eta praktiketan sortu ziren galderak egiteko espazioak ere izan zituzten. Horrek guztiak aberastu egin zuen guztien ikaskuntza-prozesua.

Bi ikastaroek oso harrera ona izan zuten elkargokideen artean. Parte hartzaileentzat oso interesgarria izan zen maila pertsonalean eta profesionalean. Bakoitza mugimenduaren eta ekintzaren mailan nola dagoen antolatuta ikasteko aukera izatea, eta borondatearen ordez norberaren adimena erabiliz norberaren mugak gainditzeko bide atseginak, errazak, bitxiak eta harrigarriak aurkitzea aurkikuntza interesgarria izan zen askorentzat.

Aintzat hartuta Feldenkrais® metodoaren ezagutzaren hedadura eta metodoaren irakasle izateko beharrezkoa den azterketa eta praktika, sarrera ikastaro horien helburua ez da bertaratutakoak metodoa lantzeko profesionalki gaitzea, baina aukera ematen dute lanketa horretara hurbildu eta lanketa funtzionalerako eta ikaskuntza organikorako oinarrizko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko.

Feldenkrais metodoa interesatzen bazaizu, metodo horrekin lotutako etorkizuneko proposamenei adi egotera gonbidatzen zaitugu. Elkargoak aurki emango dizu horien berri.

Jarraian, Feldenkrais metodoa zertan datzan adieraziko dizugu laburki.

## FELDENKRAIS® METODOARI BURUZ

Feldenkrais® metodoa mugimenduaren bidezko ikaskuntza somatikoko metodoa da.

Mugimendua eta ikaskuntza bizitzak berezko dituen bi alderdi dira. Biak lehenengo haurtzaroan garatzen dira, batera; hortaz, giza mugimendu ugari





ikasi behar ditugu, zutik jartzeko, ibiltzeko eta korrika egiteko, beste trebetasun motor sofistikatu eta xehe askorekin batera.

Egoera osasungarrian, bizitza osoan zehar eutsi dakioke ikaskuntza mota horri, harritzeko moduko gozamen-, naturaltasun- eta gogo-maila berarekin. Feldenkrais® metodoak ikaskuntza somatiko hori bultzatzen du mugimenduaren bidez, helduaroan.

Feldenkrais® metodoarekin lan egiteko, giza biomekanika ondo ezagutu behar da eta ikaskuntza organikoa sakon ulertu eta praktikoki txertatu behar da.

Metodoaren oinarrietako bat giza nerbio-sistemaren neuroplastikotasuna da, hau da, giza nerbio-sistemak bizitza osoan zehar neuronen arteko konexio berriak sortzeko duen gaitasuna, bestela esanda, ikasteko bizi-gaitasuna.

Gizakia asko errespetatzen duen metodoa da, eta, ahaleginez edo borondatez ikasi beharrean, pertsona bakoitzak bere mugak ezagutzen ikasten du, bai eta muga horiek kontzientzia-hartze prozesu baten bidez gainditzeko indarkeriarik gabeko moduak aurkitzen ere; hala, agian aldez aurretik imajinatu ere egin ez zuen moduan mugitu eta jardun ahal izango du.

Metodoak esparru argi, zehatz eta segurua eskaintzen du, hain sinple eta bikaina, ezen ate guztiak zabal daitezkeen hura praktikan jarriz gero. Mugimenduaren eta mugimendua antolatzeko, gertatzeko eta adierazteko moduari buruzko kontzientzia-hartzearen bidea erabiltzen da. Eta bide hori da, hain zuzen ere, praktikan jartzen duen pertsonari jarduteko (mugitzeko) modu horrek dakarkionari buruzko kontzientzia hartzeko sarbidea. Horrek atea zabaltzen dio auto-ezagutzari eta mugimendutik haratago doan garapena maila guztietan berrezartzeari.

## FELDENKRAIS® METODOAREN APLIKAZIO-EREMUAK

Hain funtsezkoa den giza nerbio-sistemarekin lan egitean, metodoak erabilera praktikoen espektro handi bat hartzen du. Adin- eta baldintza-tarte askotako pertsonek onurak aurkitzen dituzte Feldenkrais® metodoan: muga, lesio edo min errepikariak dituztenetatik hasi eta beren trebetasunak fintzeko bitartekoak bilatzen dituzten artista edo goi-mailako kirolarietaraino. Metodo horrek premia eta bilaketa guztiak estaltzen ditu, eta pertsona bakoitzari bere egoeraren eta motibazioaren arabera aurrera egiteko aukera ematen dio.

Feldenkrais® metodoa oso arlo ezberdinetan aplika daiteke, besteak beste:

- **Hezkuntzan**: eskola-irakaskuntza, hezkuntza berezia, psikomotrizitatea, gorputz-hezkuntza, musika-hezkuntza, coaching-a, etab.
- **Osasunean**: medikuak, fisioterapeutak, psikologoak, erizainak, hezkuntza-terapeutak, logopedak, gerontologoak, etab.
- **Eremu somatikoan**
- **Arte eszenikoetan**: antzerkia, musika, dantza, performacea, etab.
- **Kiroletan**
- **Garapen pertsonalean**

*Vanesa Polo Saborido*
*Elkargokidea 1.083*

# Experencia de un Taller de Prevención de Caídas con Orientación Comunitaria

Xabier Garcia Rebollo - Elkargokidea 3.610 EFEO

Dena hasi zen dei batekin: "*Kaixo, Laura naiz, Retina Bizkaia Begisare*[1] *elkarteko gizarte-langilea. Ikusmen murriztua duten edo itsuak diren pertsonei zuzendutako erorikoak prebenitzeko tailer bat egin nahi dugu. Lagunduko zeniguke?*"

Proiektua populazio-multzo zehatz baten premia batean oinarritzen da. Pertsona horiek babesa bilatzen dute fisioterapian, eta baliozko kolektibotzat aitortzen gaituzte hasiera-hasieratik. Proiektuaren alderdi nabarmena (eta ederrena) da ardatza ez dela *zer*, baizik eta *nola*: parte hartzeko proiektu baten bidez; eta esan beharra dago, emaitzez harago, merezi duela jada, haren ezaugarri sozialengatik.

Hasi aurretik, azpimarratu behar da proiektua Guía de Acción Comunitaria para ganar Salud[2] oinarrituta egin dela. Eta, are gehiago, gida hori irakurtzea gomendatzen dugu, bertan planteatzen diren kontzeptuak, oinarriak eta prozesuak ulertzeko eta erreferentzia bibliografiko osagarriak kontsultatu ahal izateko.

Ekintza komunitarioa, *pertsonei beren osasunaren inguruko kontrola areagotzea eta, beraz, hobetzea ahalbidetzen dien prozesua*, osasuna sustatzeko oinarrietako bat da. Baina prozesu horrek ezin du banakakoa izan; *Osasun Komunitario*[2] izeneko kontzeptuarekin lotzen da.

Ekintza komunitarioak funtzio eraldatzaile hirukoitza du (1. irudia), eta hura erdiesteko, prozesu osoaren gakoa da tartean dauden eragile komunitarioen arteko elkargune bat aurkitzea eta mobilizatzea.




**1. irudia**. Eragile komunitarioen[2] elkargunea eta mobilizazioa.

Artikulu honen bidez, metodologia komunitarioetarako eta horiek abian jartzeko bidea erraztu nahi da, proiektuaren jarraitutasuna eta proiektua beste testuinguru batzuetan errepikatu ahal izatea bermatuko duten egiturak eta estrategiak sortzea sustatuz.

Prozesua garatu ahal izateko, ekintza komunitarioaren[3] eta ekintza komunitarioko zikloaren[2] (2. irudia) oinarrizko printzipioak aintzat hartu dira, baina ez modu linealean (izan ere, ekintza komunitario guztiak bestelakoak dira eta prozesua egokitu egin behar da beti).

## 1. fasea. Taldea eta sarea eraikitzea - proiektuaren antolakuntza-egitura (3. irudia)

Proiektuaren **talde eragilea** osatu duten eragile gakoak Laura Lorente (Begisareko gizarte-langilea) eta Xabier Garcia (fisioterapeuta autonomoa) izan dira. Eta **babes-sarea** Andrea Marina Scolarik (EFEO - Kirol, Kirol Egokitu eta Kirol Inklusiboko Batzordea) eta Leyre Nechesek (Osakidetzako lehen mailako arretako fisioterapeuta) osatu dute. Halaber, Arantza Uliartek (Begisareko presidentea) zenbait alderditan parte hartu du. **Komunitate hedatua**, berriz, erorikoak prebenitzeko tailerreko parte-hartzaileek eta Zazpikaleetako Osasun Zentroko lehen mailako arretako profesionalek osatu dute. Egitura horrek ahalbidetu du proiektua elkarrekin diseinatzea, elkartearen testuingurura, premietara eta helburuetara egokituta.

## 2. fasea. Komunitatea aztertzea - 3. fasea. Aztertu eta lehentasunak ezartzea

Elkarteak, gainerako eragileekin harremanetan jarri aurretik, bere komunitatea aztertu zuen, eta ekintza aztertu eta lehentasunak ezarri zituzten, komunitatearen premietan oinarrituta. Zehazki zer egin nahi zuten argi izateak hasiera-hasieratik proiektuarekiko konexioa handiagoa izan zedin bermatu zuen (kide izatearen sentsazioa).

## 0. fasea. Abiapuntua. Elkar ezagutu eta aitortzea.

Hasieran detektatutako mugetako bat zen tailerraren edukia elkartearen berariazko kolektibora egokitzea. Muga horri erantzuna emateko, ***ikusmen murriztuari eta itsutasunari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-tailer teoriko-praktiko*** bat antolatu zen, eta elkarteak berak eman zuen. Tailerra Zazpikaleetako Osasun Zentroan eman zen, Leyre Nechesen laguntzarekin (lehen mailako arretako fisioterapeuta). Horren bidez, prestatzailea (Xabier Garcia) tailerra egokitzeko prestatzeaz gain, Arantza Uliartek (Begisareko presidentea eta erretiratutako zainketa intentsiboetako medikua) zentroko langileei ikusmen murriztuari eta itsutasunari buruzko prestakuntza eman zien.

Ekintzak, prestakuntza emateaz harago, lehen mailako arretako profesionalei lagundu egin zien beren komunitateko osasunari begirako aktibo bat[2] detektatzen, pazienteak bideratzea errazte aldera. Tailerrean izan ziren osasunaren arloko profesionalen feedbacka bikaina izan zen. Parte hartzeko espazio oso aberasgarria sortu zen, eta aukera hori baliatu zuten sarea eraikitzeko eta kideak ezagutzeko, beste proiektu interesgarri batzuetan parte hartzearen bidez; hala nola, La Vida es un Baile proiektua (memoriaren ondorioen apartatuan garatzen da[4]).




**2. irudia**. Ekintza komunitarioko zikloa[2]




**3. irudia**. Antolakuntza-egitura[2]

## 4. fasea. Jardunbidea prestatzea

Prestakuntzaren ostean, talde eragileak lanean jarraitu zuen erorikoak prebenitzeko tailerra egokitu eta prestatzeko: lekua, eguna eta ordua zehaztu zituzten parte-hartzaileen lehentasunen arabera, tailerrean erabiliko zuten material osagarria hautatu zuten, apartatu guztien edukia egokitu zuten lagunkoia izan zedin...

## 5. fasea. Ekintza - erorikoak prebenitzeko tailerra

Tailerrean 15 lagunek parte hartu zuten; zehazki, 13 emakumek eta 2 gizonek. Parte hartzaileen batez besteko adina 61,8 ± 8,85 urtekoa izan zen, hainbat lekutakoak ziren (gehienak Bilbokoak), eta ikusmen-maila ezberdinak zituzten (txostenean zehaztuta[4]).




**4. irudia**. Interakzio-mailak eta -graduak parte hartzeko eta ezagutzak partekatzeko testuinguruan, elkarrekin eraikitzeko[2]

Parte-hartzaileen parte-hartzea 4. mailakoa izan zen (4. irudia): planteatutako lehen dinamikatik (elkar ezagutzea) tailerra bere egin zuten. Dinamizatzaileak adibide bakoitza bideratu eta gidatu baino ez zuen egin, ebidentzia zientifikoan oinarritutako edukiaren bidez. Horri esker, tailerra parte-hartzaileen premia eta interesetara egokitu eta indibidualizatu ahal izan zen, eta elkarrekin hausnartzeko eta ezagutzak partekatzeko espazioa sortu zen (4. irudia). Tailerraren egitura eta edukiak kontsultatzeko, memoria irakurtzea gomendatzen da[4].

### 6. fasea. Ebaluazioa

Tailerrean eta haren ostean, aldagai soziodemografikoak eta parte-hartzaileen aurretiko erorikoen kausei lotutako aldagaiak jaso ziren. Halaber, parte-hartzaileen tailerrari buruzko iritzia ezagutzeko, inkestak banatu zitzaizkien (Google Forms).

Hauek izan ziren emaitza nabarmenenak:

- Parte-hartzaileen aurretiko erorikoen kausa nagusiak **irisgarritasun urbanistikoko arazoak eta gizartearen lagunkoitasun falta** izan ziren.
- Itxuraz, taldeak ez du zailtasun handirik oreka- eta indar-probak egiteko (balorazio funtzional indibidualak egitea gomendatzen da alderdi horri buruzko datu erabakigarriak lortzeko). Hala ere, **ariketak erorikoen prebentzioari begira duen garrantzia aitortzen dute**, eta estilo horretako programetan jarraitutasun handiagoa eskain dadila erreklamatzen dute. **Nabarmentzekoa da taldeak fisioterapeutak baliozko kolektibotzat aitortzen dituela zentzu horretan.**
- Gehienek tailerraren oso balorazio positiboa egin dute. Prestakuntzaren kalitateaz harago, azpimarratu dute beste pertsona batzuekin **sarea eraikitzeko** balio izan duela, eta horri esker, hobekuntza sentitu dute **maila emozionalean** kasu guztietan, baita hobekuntza fisikoa eta/edo bisuala ere.

Proiektuaren hedapena errazte aldera, memoria bat sortu da, eta hura kontsultatzea gomendatzen da proiektuaren emaitzak zehatzago ezagutzeko[4].

### Ondorioak eta hurrengo urratsak

- **Iraunkortasuna da gakoa.** Aldian aldiko tailerrez edo hitzaldiez harago, proiektu eta ekintza komunitario iraunkor gehiago behar dira, herritarren osasunean eragin handiagoa sortzeko, herritarren bizi-baldintzak hobetzeko, loturak eta kohesio soziala indartzeko, eta herritarren gaitasun indibidualak eta kolektiboak sustatzeko. Kasu honetan, iradokitzen da lagunkoitasun urbanistikoa eta humanoa ardatz nagusi gisa txertatzea erorikoak prebenitzeko proiektu integral batean, Begisarerekin elkarlanean.
- **Elkarren beharra dugu "komunitarioa eraikitzeko".** Proiektu honen bidez, nabarmentzen da EFEO ezinbesteko eragilea izan daitekeela orientazio komunitarioko ekintzak sustatzeko. Ildo horretan, funtsezkoa da EFEOk ikuspegi komunitarioa hartzen jarrai dezala modu estrategiko eta egituratuan, "komunitarioa" parte-hartzetik eta berdinetik berdinera aritzen diren eragileak batzetik eraikitzen dela ulertuta. Horrek guztiak, EFEOren Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko Batzorde berriari lotuta, orientazio komunitarioko proiektuak abian jar daitezela sustatzeaz gain, kide anitzeko erakundeen (lehen mailako arreta, elkarteak, unibertsitateak, auzoko klinikak…) parte-hartzea ere erraztu dezake, baldin eta gardentasunez eta irizpide bateratuetan oinarrituta egiten bada.

***Xabier Garcia Rebollo***
***Elkargokidea 3.610***

***Orri-oinean jartzeko bibliografia:***

[1] Retina Bizkaia Begisare elkartea. https://www.begisare.org/eu/
[2] Espainiako Gobernuko Osasun Ministerioa. Osasuna hobetzeko ekintza komunitarioa. Edo nola lan egin sarean bizi-baldintzak hobetzeko. Madril, 2021.
[3] Osasun komunitariorako aktiboen eta mugatzaile sozialen ikuspegia, osasunaren arloko ekitate ezen ikuspegia, sektorearteko lana, herritarren parte-hartzea, ezagutzak partekatzea…
[4] Memoria: https://drive.google.com/file/d/1fEpeMp6wO31_k1WClDf1eGNyPNBRsc6w/view?usp=sharing





# Zahartze osasuntsu bat izateko estrategiak

"Ohitura-aldaketa txiki batzuekin bizitza-osotasun handiagoa lortu daiteke"

'Fisiotopaguneak' ekimenak 2023an zahartze osasuntsu bat izateko fisioterapiaren arlotik egin daitezkeen estrategiei heldu zien. Partaideen artean hiru fisioterapeuta daude: Natalia Wierezen, Nagore Begiristain eta Mario Pellico. Jarraian, hurrengo urteetan geriatrian gertatuko denaren inguruko iritzia emango dute, baita zahartze berriak sortzen duen paradigma berriaren ingurukoa ere.

### - Zein alderdik definitzen zaituzte fisioterapeuta gisa?

NW: Natalia Wiereszen naiz, 25 urtez baino gehiagoz egin dut lan fisioterapian. Nire ustez, ariketa terapeutikoa gure pazienteak sendatzeko oinarria da. Zahartze osasuntsua izateko proiektu berri hau oso garrantzitsua da, gaur egun urte gehiagoz bizi garelako eta horiek kalitatezkoak izan behar dutelako. Zahartze osasuntsu bat izateko, ariketa ezin da alde batera utzi.

NB: Nagore Beristain naiz, fisioterapeuta naiz eta bihotz-biriketako aditu graduondokoa egin dut. Pazienteei ariketaren bidez bizi-kalitate on bat ematea funtsezkoa dela uste dut. Fisioterapeuta gisa egiten dut lan Euskal Osasun Zentroa-Osakidetzan, eta bertan bihotz-biriketako patologiak dituzten eta buxadurazko arnas gaixotasun kronikoa (BAGK) duten pazienteak tratatzen ditugu.

MP: Mario Pellico naiz. Fisioterapeuta naiz eta nire prestakuntza neuroerrehabilitazioaren arloan oinarritu da. Jardunbide klinikoa garuneko erasanaren arloan garatu dut. Esperientziarekin ohartu gara zenbait argibideekin eta pazienteen bizitza-ohituretan aldaketa txiki batzuk eginez errazagoa dela patologia tratatzea, eta pazienteek bizi-osotasun handiago bat lortzen dute.

### -Garuneko erasanaren tratamenduak banakako terapiekin elkartzen dira normalean. Zein dira egokiagoak, taldeko terapiak edo banakakoak?

Betiko dilema da. Banakakoa hobea da, baina jarduketa orokorrak behar ditugu modu errazean eta kostu baxuarekin aplikatu ahal izateko. Konponbidea oinarrizko jakintzetan oinarritutako hezkuntza orokorra ematea da. Denok dakigu oinez ibiltzea ona dela, baina indar-entrenamendua ere egin behar da. Ikaskuntza-taldeen bidez egin liteke, lehen mailako arretaren barruan, osasun-zentroetan, behar denean banakako saioak taldekoekin konbinatzeko aukera emanez.

### Komunitate-mailan, zein izango litzateke helburua?

Oso garrantzitsua da hezkuntzaren bidez zahartzaroaren eta zahartzaro osasuntsuaren arteko arrakala haustea. Heziketa hori kudeatzaileekin hasi behar da, ondoren gainerako herritarrei zabaltzeko. Bizi-ziklo osoan zehar eman behar da, haurrekin hasiz eta gurasoek ere ohitura on horiek eduki ditzaten. Hori guztia desgaitasuna eta mendekotasuna saihesteko kontzeptuan sartzen da. Hortaz, hoberena desgaitasuna agertzea ekiditeko jardutea da.

Talde ezberdinak sor daitezke, batzuk prebentigoagoak 35 eta 60 urte bitartekoentzat, sarkopenia saihesteko. Eta 60 urtetik aurrerako beste batzuk, ariketak egin ez izanaren ondorioak sufritzen dituztenek osatua. Halaber, kontuan izan behar dugu tamalez adinkeria gure gizartean agerikoa dela, eta aurreiritzi horiek desegin behar dira.

### Ariketarekin sarkopenia (adinekoen artean masa, indarra eta muskuluen funtzionamendua galtzea da afekzio horren ezaugarria) saihestea posible dela uste duzue?

Noski baietz. Baina funtzionalitatea ere kontuan izatea garrantzitsua da.

***Komunikazio Batzordea***

TOPAGUNEAK
FISIO

# “Errealitate birtualak lesio fisikoetan garunak nola esku hartzen duen ikusten laguntzen du”



Samuel Pérez del Camino:

Fisioterapeuta eta Nafarroako

Unibertsitate Publikoan

Errealitate Birtualeko lehenengo

laborategiaren sortzailea

**Samuel Pérez del Camino, kirolarien berreskuratzean espezializatutako fisioterapeuta, munduan zehar dabil errealitate birtualak fisioterapian dituen erabilerak eta aplikazioak irakasten, eta zazpi urte darama arloan lanean. Belauneko bost lesio jaso ostean eta eskia eta surfa uztera behartuta egonda (kirol horietako irakaslea izan da), xx urteko mexikarrak osasunaren diziplina horretan hezitzen hasi zen, eta etengabe ikertzen jarraitu du.**

*Arratsalde on, Samuel, zer dela-eta hautatu zenuen fisioterapia lanbide gisa? Zerk erakarri zintuen?*

Eskerrak ematen dizkiot lanbideari, belauneko bost operazio behar izan nituen konturatzeko beste zerbaitetan aritu behar nintzela. Fisioterapian lan egin aurretik eski eta surfeko irakaslea izan naiz. Baina 25 urterekin utzi behar izan nuen, nire lesioengatik. Santanderren esku-hartze kirurgikoa egin zidatenean kiroleko lesioei buruzko liburu bat oparitu zidaten. Aspertuta nengoen, eta “Nire belauna” izeneko PowerPoint bat egiten hasi nintzen. Liburua izugarri gustatu zitzaidan, eta Fisioterapiako graduan izena ematea iradoki zidaten. Harrezkero etengabe egon naiz ikasten eta ezagutza guztiak nire pazienteei aplikatzen.

*Tolosan neurobiomekanikari eta errealitate birtualari buruz eman duzun prestakuntzaz gain, zure jarduna arlo klinikoan ala ospitalekoan garatzen duzu?*

Arlo klinikoan egiten dut lan. Fisioterapiako hiru klinika izan ditut, bata Santanderren, bestea Valentzian, eta oraingoa Fuengirolan, bertara joan nintzelako bizitzera. Klinika horretan muskuloeskeletikoaren eta minaren arloarekin lotutako guztia garatzen dut. Mota askotako pazienteak ditut. Horretaz gain, Hego Amerikatik eta Espainiatik bidaiatzen dut, errealitate birtualari buruzko ikastaroak eta heziketa emateko.

*Irakasten duzun guztia errealitate birtualarekin lotuta dago?*

Ia zazpi urte daramat errealitate birtuala eta fisioterapia lantzen. Dagoeneko ehunaka ikasle prestatu ditut arlo horretan. Horretaz gain, neurozientzia aplikatuarekin, balioespen funtzionalarekin eta ariketa terapeutikoarekin lotutako beste prestakuntza batzuk ematen ditut. Pruning neuronaleko metodoak irakasten ditut, edozein pazienteri lesio muskuloeskeletikoak tratatzeko, baita ariketak nola egokitu, kargak nola egin eta neurozientzia aplikatuan, fisioterapian eta ariketa terapeutikoetan oinarrituta edozein paziente-motarekin nola lan egin ere.

*Zertarako balio du errealitate birtualak fisioterapian?*

Hasi nintzen ikusten behar diren metodologia eta tresna guztiak ditugula lesionatutako kirolariak aurrera ateratzeko, baina zerbaitek ihes egiten zigun; izan ere, urteak igaro ostean, muskuluetako atrofiak agertzen ziren. Neure buruari galdetu nion zer egon zitekeen kirolari baten garunean lesio muskuloeskeletikoa zegoenean. Ezin dira garuna eta zati fisikoa bereizi. Errealitate birtualak lesio fisikoetan garunak nola esku hartzen duen ikusten laguntzen du. Errealitatearekin mundu ahalik eta errealean sartzen saiatzen gara, eta, gure kasuan, kirol-arloan, nik nire kirolaria kontrolatu eta jarraipena egin ahal izateko aukera ematen didan tokia nola sortu ikus dezakegu.

*Eguneroko bizitzan hautematen dugu teknologia izugarri gustatzen zaigula. Nola erantzuten dute zure pazienteek errealitate birtualeko betaurrekoak ematen dizkiezunean?*

Zenbait pazientek oso azkar integratzen dute eta ez dute inolako arazorik gauza berriekin aritzeko. Egia da nik zorte handia dudala, nire pazienteetako asko dagoeneko nire lagunak direlako, eta zerbait berria frogatzeko proposamena egiten diedanean ez didate inoiz ezetz esaten. Baina egia da ezagutzen ez nauen paziente berria denean, pixka bat azaltzen diodala zer egingo dugun, zein diren ondorioak eta nola egokituko ditugun. Sortu dudan gidarekin egokitzapen ona lortzen badut, argi dago berehala erabakiko dutela teknologia hori erabiltzea.

*Zure ustez, bideragarria al da teknologia berri hori kontsultatik kanpo erabiltzea, hala nola pazienteak bere etxean tele-errehabilitazioa egiteko?*

Tele-errehabilitazioan mugikorreko Track izeneko aplikazioa erabiltzen dut. Horrek adimen artifiziala aplikatzen du, eta emaitzak oso onak dira, bidaiatzen nagoenean nire pazienteen jarraipena egiten dudalako, eta aplikazioan zein ordutan sartu den ikus dezakedalako. Gero, birtualean betaurrekoak ditut; paziente-motaren arabera, egin daiteke, edo ez. Batez ere gazteei betaurrekoak uzten dizkiet erabiltzen irakatsi ondoren, nahi dudalako gehiago egokitu daitezen, edo interesatzen zaidalako klinikatik kanpo ere ariketa fisiko gehiago egin dezaten.

*Desgaitasunen bat duten pazienteek ere betaurrekoak erabil ditzakete?*

Normalean, test bat erabiltzen dut errealitate birtualeko betaurrekoak erabili ditzaketen edo ez jakiteko. Pazienteak ezin badu errealitate birtual murgiltzailea erabili, murgiltzailea ez den errealitate birtuala erabiltzen dut. Hala, kasuaren arabera egokitzen dut. Azken finean, beti bezala, guztia teknika da, eta fisioterapeutak garen aldetik, zenbait pazientetan aplikatu ahal izango dugu, eta beste batzuetan ez.

*Zein gomendio emango zenuke fisioterapia eta errealitate birtualari buruz?*

Askok uste dute betaurreko birtualekin nahikoa dela erosi eta jartzea, baina ez da hala. Beharrezkoa da dosifikazioa eta aurretiazko probak egitea. Ulertu behar da zein den aurrean dugun paziente-mota eta nola egokitu behar dugun errealitate birtuala. Jende asko betaurrekoak erosi eta aurretik informazioa bildu gabe erabiltzen hasten delako. Beste teknika batzuekin gertatzen den bezala, beharrezkoa da aurretiaz prestakuntza izatea. Hala, erabiltzen ari den teknikak eragin zehatza izango du. Horretarako, errealitate birtualeko dosifikazio-gida, aplikazioen liburutegia eta metodoa sortu ditut; horiek, ebidentzia zientifikoetan oinarritzeaz gain, transferentzia klinikoa dute errealitate birtualarekin tratatutako ehunaka kasuetara. Labur esanda, garrantzitsuena da arlo klinikoan probatu dudan eta aztertu dudan guztia beste hainbat arlotara heda daitekeela.

***Komunikazio Batzordea***



# EAEko fisioterapiako zentro klinikoen bilakaeran legezkotasunera egokitzea, lege ikuspegitik (31/06 Dekretua)

*“Bere zereginetan pentsatzen ez duena, gogorarazten dizkienean izan ezik, ez da estimatzeko modukoa Plauto”*

Fisioterapia-zentro eta -kliniken bilakaera, legalki ireki ondoren, oso dinamikoa da eta hala jasotzen da Euskadin indarrean dagoen Dekretu arautzailean, hau da, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzko otsailaren 21eko 31/2006 Dekretuan. Hala, araudi erregulatzaileak —2013ko urriaren 24tik indarrean dagoen berrikuspena, kirurgia-jarduerak eta/edo barneratzerik gabeko prozedura diagnostiko eta/edo terapeutiko inbasiboak egiten dituzten osasun-zentroak eta -zerbitzuak baimentzeko aplikatzeko eskakizun teknikoak arautzen dituen Osasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren 12ko Agindua— interes handiko bi auzi jasotzen ditu: funtsezko aldaketak eta zentroaren ixtea.

## I.-. Funtsezko aldaketak.

Batzuetan zerbitzuak zabaltzen dira edo titulartasuna aldatzen da; halakoetan, alderdi horien berri eman behar zaio —nahitaez eta aurretiaz— euskal osasun-administrazioari, bide telematikoen bidez eta eskura jartzen den eredu estandarizatua erabiliz. Horren inguruko informazio zehatzagoa topatuko duzue honako esteka ofizial hauetan:

Zentroen baimentzea – Eusko Jaurlaritza – Euskadi.eus

Kontsulta medikoak, beste profesional sanitario batzuen kontsultak, zentro balioaniztunak, zentro espezializatuak, osasun-azterketak egiteko zentroak, erakunde ez-sanitario batean sartutako osasun-zerbitzuak Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)

Ez dira auzi hutsalak, baizik eta gure herritarrei osasun-arloan arreta egokia emateko garrantzi handia dutenak. Bestalde, 11. artikuluaren edukitik ondorioztatu daitekeen moduan, interpretaziorako tarte handirik uzten ez duten hainbat kasu dira, hala nola honako hauek: higiezinaren egituraren edo antolamenduaren aldaketa, erradioterapiako edo medikuntza nuklearreko asistentzia-unitateen aldaketa, asistentzia-eskaintzaren aldaketa (fisioterapiaren kasuan gogoratu behar da U.59 gakoa hartu behar dela gako definitzaile gisa) eta, azkenik, titulartasunaren aldaketa.

Ia beti gertatzen den moduan, Administrazioarekiko harremana sortzen denean, tasa kontzeptua agertzen da, eta bai, tasa bat ordaindu behar da, zeina, normalean, instalazio- eta funtzionamendu-baimenetarako aurreikusitako zenbatekoaren erdia izaten baita (2024ko ekitaldian 172,68 eurokoa izango litzateke).

Adibide gisa, jarraian osasun sailaren webgune ofizialean kasu bakoitzean irekitzen den zabalgarria itsasten dugu: titulartasun aldaketaren kasuan, azpimarratu behar da, ikusten den moduan, —aldeen identitateak akreditatzeaz gain— aldaketa justifikatzen duten ziurtagiriak aurkeztean datza (normalean, eskualdatze-kontratu bat eta antzeko figura juridikoak izango dira). Ikusi zabalgarria:

Higiezinaren egitura edo banaketa aldatzeko eskabidea titulartasunak eskatu behar du eta honako dokumentazio hau eduki beharko du:

- a) Proposatutako aldaketaren justifikazio-memoria; aurreikusitako betearazpen-epea, asistentzia-kalitatea bermatzeko hartuko diren neurriak eta funtzionamendu egokia edo, bestela, osasun-zentroaren aldi baterako itxiera adieraziko dira.
- b) Lokalaren baterako eta xehetasuneko plano berria, sarbideak, espazioen banaketa eta azalerak zehaztuta.
- c) Hala badagokio, osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduko arau erregulatzaileak eskatzen dituen dokumentuak.
- d) Dagokion **tasaren** ordainagiria.

**Asistentzia-eskaintza aldatzeko eskabidea titulartasunak eskatu behar du** eta honako dokumentazio hau eduki beharko du:

- a) Asistentzia-eskaintza berriaren azalpen-memoria; hartan, osasun-jarduera / -tratamenduen zerrenda eta osasun-ekipamendu eta -materialaren zerrenda jaso beharko dira.
- b) Pertsonal sanitario berriaren zerrenda, eta haien nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo haien identitatea egiaztatzeko baliozko beste agiri bat; dagozkien titulazioen, elkargokidetzaren, hala badagokio, eta dedikazio-erregimenaren agiri bidezko justifikazioa.
- c) Hala badagokio, osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduko arau erregulatzaileak eskatzen dituen dokumentuak.
- d) Dagokion **tasaren** ordainagiria.

**Titularra aldatuz gero**, titulartasun berriak aurkeztu behar du eskabidea, eta honako agiri hauekin batera aurkeztu behar da:

- a) Osasun-zentroaren edo -zerbitzuaren titulartasuna aldatu dela egiaztatzen duten dokumentua edo dokumentuak.
- b) Osasun-zentroaren, -zerbitzuaren edo -establezimenduaren titular berria pertsona fisiko bat bada, nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo haren identitatea egiaztatzeko baliozko beste agiri bat.
- d) Osasun-zentroaren titular berria Osakidetzaz bestelako pertsona juridiko bat bada, identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) fotokopia, eraketa-dokumentua, estatutuak, haren izenean diharduen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua eta nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo haren identitatea egiaztatzeko baliozko beste agiri bat.
- e) **Asistentzia-jardueraren arduradunaren izendapena** pertsonal sanitario berria bada, baita nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo haren identitatea egiaztatzeko baliozko beste agiri bat, titulazioa, elkargokidetza, hala badagokio, eta esleitutako pertsonak emandako onarpen idatzia.
- f) Dagokion **tasaren** ordainagiria.
- g) Osasun-hondakinak sortzen badira, Osasun Sailari osasun-hondakinen eta beste hondar arriskutsu batzuen ekoizle txikia dela jakinarazi izanaren egiaztagiria erantsi behar du.

## II.-. Zentroaren itxiera: kontuz, hiru hilabeteko aurrerapena. 23. art.

Osasun-zentro bat ixten denean (fisioterapiako zentro bat gure kasuan), euskal osasun-administrazioaren lehentasuna da funtzionamenduan egon den urteetan sortu den osasun-dokumentazioa behar bezala gordetzea eta, hortaz, herritarrei arreta ematerakoan sor daitezken disfuntzioak ekiditea. Ondorioz, Osasun Sailak honako hau eskatzen du 23. artikuluaren b.2 atalean: Memoria deskribatzaile bat telematikoki aurkeztea, ez du zertan oso luzea izan. Txostenak aztertu behar du nola jasoko den osasun-dokumentazioa, dagozkion legezko zaintza-epeak indarrean dauden bitartean. Kasu honetan ez da tasak ordaintzeko beharrik sortzen.

Azalpen labur hauek lagungarri izango zaizkizuelakoan, legea betetzearen eta asistentziaren kalitatearen ikuspegitik, lanbidean aurrera egiteko, EFEOko aholkularitza juridikoak agurtzen zaituzte.

.

***Aholkularitza Juridikoa***

Aholkularitza juridikoko zerbitzuaren helburua da aholkularitza juridikoa ematea elkargokideei eta Gobernu Batzordeari, zuzenean edo zeharka fisioterapiaren jarduera profesionalari lotutako arlo guztietan.

Aholkularitzak zuzenbidearen arlo hauek barne hartzen ditu: zibila, penala, sanitarioa, zehatzailea, administratiboa, lanekoa, fiskala, finantzarioa, higiezinena, komunitarioa, sozietarioa eta merkataritzakoa. Hauek dira elkargokideen artean egon diren kontsulta-gai ohikoenak: fisioterapia-zentroak eskualdatzea eta martxan jartzea, irakaskuntza, hitzarmenak, LAAB, erantzukizun zibileko asegurua, DBLO, PFEZ, lana atzerrian, Osakidetza, Ordainbideen Legea, tarifak, istripuen aurreko asegurua, hitzarmen kolektiboa eta beste elkargo batera aldatzea.

Zerbitzua doakoa da elkargokideentzat, eta aholkularitza barne hartzen du soilik. Hau da, ez du dokumentuak prestatzea, edo aholkularia auzitegi, organismo, ikuskaritza eta abarretan bertaratzea barne hartzen. Horrelakorik egitekotan, aholkulari juridikoak lan horiek fakturatuko lituzke, elkargokidearekin adostutako zenbatekoan.

Aholkularitza-zerbitzu hori erabiltzeko, aldez aurreko kontsulta bat hitzartu behar da elkargoko idazkaritzara deituta, fax bidez edo posta elektronikoz.

Hau da aholkularitza juridikoaren ordutegia:
Astelehena: 17:00-21:00
Asteartea: 15:30-19:30
Ostirala: 9:30-14:00



**Letradua: Severino Setién Álvarez jn.**
Tel.: 94 402 01 55
Helbide elektronikoa: setien@cofpv.org

# administrazioak jakinarazten du

Elkargokide hori:

Administraziotik hauxe gogorarazi nahi dizugu:

- Udako ordutegia dela eta, EFEOko ordutegia **2024ko uztailaren 3tik ekainaren 17tik abuztuaren 30era arte (biak barne)** ondorengoa izango da:
  - Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik - 14:30etara

- EFEOa **2024ko uztailaren 25, 26 eta 31an eta abuztuaren 15, 16 eta 25ean** itxita egongo da, jai egunak direlako.

- Elkargoko intraneten eskuragai dauzkazu elkargoaren ohiko kuota murrizteko eskaerak erretiro partziala hartzeagatik, jubilazio edota ezintasun iraunkorra egoeragatik, eta langabezian egoteagatik baita ere, **azken honen eskaera epea 2025eko urtarrilaren 1etik 31ra delarik.**

- Gogoratu Elkargoak **lan poltsa bat** mantentzen duela, interesa duen elkargokide orok eman dezake izena, eta Fisioterapeuta lanpostu bat betetzeko beharra duenei ematen zaie.

- Fisioterapia zentroa daukazuen elkargokideoi gogorarazten dizuegu, zentroa EFEOak onartua daukala ziurtatzen duen **Biniloa** eska dezakezula; halaber, **baimena** ere deskarga dezakezue gure Webgunean, honela, zure zentroko datuak zabaldu ahal izateko. Fitxa hau beteta, **sinatuta eta zigilatuta** igorri behar diguzu, **posta arruntaz, (dagokion Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzak emandako baimenaren fotokopiarekin batera)**.

- Jakinarazi nahi dizugu, Eusko Jaurlaritzak ezarritako **Pazienteen Segurtasun** estrategiak direla eta, zentro bakoitzean zuzendaritzak gutxieneko **Segurtasun Plan bat** egin behar duela, aztertzeko zein segurtasun-prozedura eta -pauso eman behar diren zentroan pazienteen osasunerako arriskuak murrizteko. Informazio gehiago izatekotan eta galderetarako posta elektroniko honetara idatzi dezakezu: seguridadpaciente@cofpv.org edota Elkargoko egoitzara deitu dezakezu telefono honetara: 944020155.

***EFEOko Administrazioa***





# iragarki-taula

VENDO MATERIAL DE FISIOTERAPIA
Y MOBILIARIO CONSULTA:
Negastoscopio de un cuerpo para valoración de radiografías. 9€
Mostrador recepción dos alturas, buen estado. Color madera. 45€
Sillas apilables sala de espera, buen estado. 6 unidades. 20€/unidad
2 percheros pared metálicos, con repisa superior y 4 colgadores. 25€/unidad
Máquina de parafina nueva, con componentes y guantes de plástico. Con caja. 69€
Aparato electroterapia Sonoplus 992+. 195€
No se envía. El material se encuentra en Vitoria.
Se mandarán fotografías a los que puedan estar interesados.
**Interesad@s contactar en el 648 164 146**

SE VENDE POR JUBILACIÓN (JUNTOS O POR SEPARADO, 1 CONSULTA DE FISIOTERAPIA EN GALDAKAO (150 M2) Y OTRA CONSULTA DE FISIOTERAPIA EN IGORRE (350 M2 DE LOS CUALES 150 M2 EN USO).
AMBAS TOTALMENTE EQUIPADAS, CON CAMILLAS, APARATOS DE ELECTROTERAPIA, ETC..
NEGOCIOS CONSOLIDADOS TRAS 25 AÑOS DE TRAYECTORIA Y CON GRAN CARTERA DE CLIENTES.
**TELÉFONOS DE CONTACTO: 619445991 / 619445841**

Alquilo despacho en centro multidisciplinar ya consolidado (en marcha desde hace 10 años) a profesional autónomo.
Requisitos: Tener la titulación en Fisioerapia y conocimientos en Osteopatía.
Alquiler de despacho + gastos comunes.
Condiciones a consultar en la entrevista.
Disponibilidad a partir del 20 de junio en Vitoria-Gasteiz
**Eider 688608558**

Se vende centro de rehabilitación y locales en Bilbao (muy céntrico; muy bien comunicado con metro, bilbobus, tranvia y tren), en funcionamiento desde hace 20 años, totalmente equipada con amplia cartera de pacientes; acuerdos con ahegon, occident seguros, imq y pacientes privados; ideal para 2 o 3 terapeutas; tiene 4 salas de atención individual, un espacio común, (para ejercicios y demas), un despacho, sala de espera y baño.
Se vende (locales+negocio) por 170.000 euros.
**Para más información ponerse en contacto en el tlf 636775280.**

Se traspasa centro de fisioterapia en Pontenova con opción de incluir el bajo.
El precio sería el valor del bajo y dejaría el material.
**Interesados llamar al 626820616.**

Busco compañera/o fisioterapeuta para asociarnos.
Centro propio desde hace 12 años en Vitoria-Gasteiz.
Motivaciones personales. No es necesario capital.
Diversas posibilidades de asociación.
**Contacto para más información: elenasaezfisioterapia@gmail.com / 647156059**

SE ALQUILA CENTRO DE FISIOTERAPIA
Actualmente en funcionamiento desde hace 22 años, en Algorta.
Por motivo de Jubilación dejamos la actividad.
El Centro dispone de: dos salas de tratamiento, salón para realizar ejercicios terapéuticos de marcha, pilates, etc. un despacho, sala de espera y un baño con buena accesibilidad.
**Interesados, podéis contactar a través del e-mail centrofisioterapia.antonio@gmail.com**

# lan eskaintzak

## araba

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Vitoria
**Saila:** FISIOTERAPIA
**Kontratu mota:** Temporal
**Ordutegia:** 11:00 a 13:00 (de L a V) y de 16:00 a 18:00 (solo L y X)
**Esperientzia:** 6 meses
**Oporretako erregimena:** según convenio nacional de dependencia
**Lan Hitzarmena:** CONVENIO NACIONAL DE DEPENDENCIA
**Baldintza osagarriak:**
- Titulación en Fisioterapia
- Colegiación
- Incorporación inmediata

**Beste gogoeta batzuk:**
- Contrato de sustitución del 19 y 31 de julio
- Jornada parcial de 23 h/s semanales de lunes a viernes
- Lunes y miércoles mañana y tarde. Martes, jueves y viernes sólo mañanas.
- Salario según Convenio Nacional Dependencia

**Harremanetarako datuak: melca.penas@aliadosporlaintegracion.org**

**Kargua / Lanpostua:** Fisoterapeuta
**Lantokia:** Portal de Foronda 15
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Indefinido
**Ordutegia:** A convenir
**Esperientzia:** Preferiblemente, experiencia en residencias
**Oporretako erregimena:** 30 días
**Lan Hitzarmena:** Atención a personas dependientes estatal
**Harremanetarako datuak: direccion@etxekoberoa.com**

## gipuzkoa

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Donostia
**Saila:** Gipuzkoa
**Kontratu mota:** regimen general
**Ordutegia:** tarde
**Esperientzia:** obligatoria
**Oporretako erregimena:** regimen general
**Baldintza osagarriak:**
- formación en osteopatía

**Otras consideraciones**
- horario de tarde
- imprescindible experiencia laboral en ámbito privado

**Harremanetarako datuak: soin.fisio@gmail.com**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta Cantera
**Lantokia:** Ipurua y Unbe (Eibar)
**Saila:** Cantera
**Kontratu mota:** Parcial
**Ordutegia:** 17:00-20:30 o 18:00-21:30
**Esperientzia:** Se valorará experiencia en deportes de equipo, especialmente en fútbol
**Oporretako erregimena:** Verano
**Harremanetarako datuak: Enviar el CV al email futbolbase@sdeibar.com**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** San Sebastián centro
**Saila:** Salud
**Kontratu mota:** Autonomo
**Ordutegia:** Flexible
**Esperientzia:** 2 años
**Oporretako erregimena:** Flexible
**Baldintza osagarriak:**
- Se busca fisioterapeuta deportivo para nuevo centro de salud en el centro de San Sebastián (HENKO salud y bienestar), se valora conocimientos en ecografía y terapias invasivas, Indiba y osteopatia.

**Beste gogoeta batzuk:**
- Gran oferta económica y flexibilidad horaria

**Harremanetarako datuak: gorka.martinez.alzaga@gmail.com**

## bizkaia

**Kargua / Lanpostua:** fisioterapeuta
**Lantokia:** BARAKALDO
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Indefinido
**Ordutegia:** 16:00 a 20:00
**Esperientzia:** No hace falta
**Oporretako erregimena:** Anuales de 30 dias
**Lan Hitzarmena:** Estatuto trabajadores
**Baldintza osagarriak:**
- ESTAMOS BUSCANDO FISIOTERAPEUTA PARA UNIRSE A NUESTRO EQUIPO A MEDIA JORNADA (TARDES).
- OFRECEMOS:CONTRATO INDEFINIDO EN R.S.SOCIAL. INCORPORACION INMEDIATA.
- SERIA DE LUNES AJUEVES DE 16::00 A 20:00 HORAS.

**Harremanetarako datuak: INTERSADOS ENVIAR CV: clinicaolerta@yahoo.es**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** ABADIÑO
**Saila:** ÁREA MÉDICA
**Kontratu mota:** Interinidad
**Ordutegia:** Lunes a Jueves: de 8 a 16 horas. Viernes: de 8 a 15 horas
**Esperientzia:** No se requiere
**Oporretako erregimena:** Contrato de interinidad
**Harremanetarako datuak: jgerman_radigales@fremap.es**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Lekeitio
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Indefinido
**Ordutegia:** flexible
**Esperientzia:** 3
**Oporretako erregimena:** 1 mes
**Baldintza osagarriak:**
- Fisioterapeuta en principio para media jornada con opción a ampliar contrato.
- Fisioterapia Deportiva.
- Contrato indefinido.

**Harremanetarako datuak: orekanbat@gmail.com**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Bilbao
**Saila:** Sanitario
**Kontratu mota:** Indefinido
**Ordutegia:** 31 horas semanales
**Esperientzia:** 2 años
**Oporretako erregimena:** Días naturales
**Baldintza osagarriak:**
- Buscamos fisioterapeuta con formación en terapia manual, que le guste el trabajo en equipo y la visión integrativa del cuerpo.
- El puesto de trabajo sería para un contrato indefinido en jornada de tardes, de lunes a viernes de 31 horas a la semana, 30 horas serían con pacientes privados en sesiones de 45-50 minutos y 1 hora semanal de reunión de equipo. Vacaciones en dias naturales, más cuatro dias de formación. Salario 18.500.

**Harremanetarako datuak: Interesados mandar curriculum a koenasalud@gmail.com o 946856584**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Centro Residencial Ribera
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Indefinido
**Ordutegia:** Fijo de Tarde
**Esperientzia:** Valorable contar con experiencia previa
**Oporretako erregimena:** Se indica en entrevista con dirección del centro
**Baldintza osagarriak:**
- Diplomatura / Grado en Fisioterapia.
- Se valorará positivamente la formación específica en geriatría o neurología, así como pilates.
- Se valorará positivamente la disponibilidad de cursos de formación relacionados con el área así como formación complementaria en términos de fomento de la Igualdad.

**Harremanetarako datuak: Leyre Carrera Varona / 660 52 00 94 / lcarrera@domusvi.es**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Bilbao
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** INDEFINIDO
**Ordutegia:** A CONVENIR por fisioterapeuta
**Esperientzia:** No relevante
**Oporretako erregimena:** 1 mes
**Beste gogoeta batzuk:**
- Se requiere de fisioterapeuta en grupo de residencias de Bilbao centro
- Se ofrece contrato de 15h-35h a convenir por fisioterapeuta
- SALARIO EQUIVALENTE A 2400€ MENSUALES

**Harremanetarako datuak: p.fisioterapiabilbao@gmail.com**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Erandio Campa
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Fijo
**Ordutegia:** Dos tardes a la semana por convenir
**Esperientzia:** No precisa
**Oporretako erregimena:** Según convenio
**Lan Hitzarmena:** Sector Centros de la Tercera Edad de Bizkaia
**Beste gogoeta batzuk:**
- Facilidades para acordar la distribución de las 4 h semanales.

**Harremanetarako datuak: info@residenciaelizalde.com**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Portugalete
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Temporal
**Ordutegia:** 09 a 12:30
**Esperientzia:** Experiencia previa en centros geriatricos
**Oporretako erregimena:** Segun Convenio
**Lan Hitzarmena:** Convenio Residencias Bizkaia
**Baldintza osagarriak:**
- Se valorará positivamente la formación especifica en geriatria. Preferible con experiencia previa en centros geriatricos.

**Beste gogoeta batzuk:**
- Se require fisioterapeuta para cubrir dos quincenas de vacaciones del personal titular.

**Harremanetarako datuak: rodriguez@andoinv.com**

**Kargua / Lanpostua:** Fisioterapeuta
**Lantokia:** Amorebieta-Etxano
**Saila:** Fisioterapia
**Kontratu mota:** Jornada erdira, luzatzeko aukerarekin
**Ordutegia:** Arratsaldeetan, adosteko
**Esperientzia:** Ez da beharrezkoa
**Oporretako erregimena:** Kontratuaren arabeherakoa
**Baldintza osagarriak:**
- Iraila-Urritik aurrera hasteko da.

**Harremanetarako datuak: orekafisio.zornotza@gmail.com**

**Kargua / Lanpostua:** FISIOTERAPEUTA
**Lantokia:** BARAKALDO
**Saila:** FISIOTERAPIA
**Kontratu mota:** 30 HORAS INDEFINIDO con posibilidad de aumentar las horas según la demanda
**Ordutegia:** Lunes y miércoles de 9:00-15:00, martes y jueves de 14:00 a 20:00 y viernes alternos de mañana y tarde. El horario es orientativo, no tiene que ser estrictamente el propuesto.
**Esperientzia:** 2 AÑOS
**Oporretako erregimena:** 33 DÍAS NATURALES
**Lan Hitzarmena:** Centros sanitarios privados
**Baldintza osagarriak:**
- Centro de fisioterapia que trabaja exclusivamente con particulares. Dedicamos a cada paciente 50 minutos de terapia manual. Necesitamos incorporar en el equipo fisioterapeuta con la mayor brevedad posible.
- Fundamental ser una persona empática, responsable e implicada. Tener experiencia en terapia manual y disposición para seguir creciendo como profesional.
- Dentro de los servicios que ofrecemos están pilates, punción seca, osteopatía estructural... Se valorará este tipo de formaciones aunque no son imprescindibles. En especial nos parece importante tener una visión y abordaje global e integrativo del paciente.

**Beste gogoeta batzuk:**
- Dentro de la jornada de 30 horas, 4 son para gestiones administrativas. El salario está por encima del convenio

**Harremanetarako datuak: laura.eretza@gmail.com**

# elkargokide berriak

Euskadiko Fisioterapeuten
Elkargo Ofizialak
ongietorria eman nahi
die elkargokide berriei
**Ongi etorri!**

## araba

4377 Valentin Tejero Gomez
4379 Juan Carlos De León Alfonso
4386 Pablo Carlos Sagardoy Monte
4392 Ander García Rendo
4394 Iraia Sabater Bombin
4395 Joaquin Fabregas Fernandez
4402 Zuriñe Apodaca Ramos
4407 Gorka Vega del Rio Del Val
4412 Marina García Zarate
4418 María García de Motiloa Iruretagoyena
4422 Urtzi Isusi Urkixo
4408 Miguel Carrasco Guerrero
4409 Itxaso Pagola Arriaga
4411 Jose Antonio Urruela de la Herran
4414 Jone García Gainza
4416 Uma Agiriano Gilisasti
4417 Olatz Gomila Velasco
4419 María Arbeloa López
4420 Maialen Idiri Vega
4426 Luzia López Zaldibar
4428 Juan Atela Urquijo

## bizkaia

1650 Mónica Vizoso Palacios
1846 Naiara Zabala Jiménez
1923 Maitane Maguregui López
2706 Joseba Zarzosa Rodríguez
3111 Javier Antolín Díez
4374 Cristina Albarracín Seiquer
4378 Eneritz Ramos Garay
4380 Almudena Montalvo Pérez
4384 Pablo Albisu Astigarraga
4385 Rosa María Laura Vega
4387 Mario Rodriguez Arietaleanizbeaskoa
4391 Josu González Gozalo
4393 Leire Hernández Presa
4396 Jon Begoña Gonzalez
4397 Iñigo San Pedro Díez
4398 Joseba Zalba Ruiz de Azua
4399 Victor Amor Miguel
4400 Joane Ciarreta Goiriastuena
4403 Gaizka Legarza Eiguren
4406 Naroa Arandia Calzacorta

## gipuzkoa

4375 Ibon Samaniego Madina
4382 Lore Gerrikagoitia Beitia
4383 Aitor Gainza Tamerón
4388 Idoia Hernández Morales
4389 Elene Martxela Vazquez Mariñelarena
4390 Ander Guerra Zubiaurre
4401 Ane Durana Aizpurua
4404 Ane Santa Cristina Jausoro
4405 Janire Gamboa Garcia
4410 Joseba Pastor García
4413 Maitane Arretxe Goenaga
4415 Angie Viorley Alfonzo Rojas
4421 Goizane Bercianos Berroa
4423 Lucía Miguel Gorostiza
4424 Aimar Iturriotz Pozueta
4429 Ainhoa Echeverria - Arteun San Sebastián

## beste batzuk

4376 Juan Higuera Alvarez
4381 Naiara Ortín Azcona
4425 Léa Charlotte Bacri
4427 Sara Vivanco Hurtado

Oharra: 2024ko martxoaren 12an eta uztailaren 10ean bitartean 61 kide berri elkartu dira elkargora. Horrenbestez, Elkargoak 3.471 kide ditu gaur egun.






SURNE AUTÓNOMO POWER

COMPAÑÍA MEJOR VALORADA PREMIOS ADECOSE VIDA / RIESGO / ACCIDENTES AHORRO / PENSIONES 2015-2023

TODA LA AYUDA QUE PUEDAS NECESITAR EN UN SOLO PRODUCTO

LOS PRIMEROS **6 meses** GRATIS

**La correduría de seguros del CMB, de la mano de SURNE, pone a tu disposición el producto definitivo para la y el autónomo.**

Toda la ayuda que como profesional necesitas está ahora en un solo producto, configurable para adaptarlo a ti: Autónomo Power de SURNE.

ESTA ES LA SITUACIÓN

Más del 80% de las y los autónomos cotizan por la base mínima. Mira este ejemplo, si tus rendimientos netos mensuales son de 2000€, tu base mínima de cotización en 2024 es de 1062€, con una cuota al mes de 332€. Por lo que pagarías 3984€ al año.

332€/mes x 12 meses x 37 años cotizados: 147 408€

Con esta cotización consigues una pensión mensual* que varía dependiendo de la situación:

| | |
|---|---|
| En caso de Jubilación | 1062€ |
| En caso de Viudedad | 552€ |
| En caso de Orfandad | 212€ |
| Incapacidad Permanente Absoluta | 1062€ |
| Incapacidad Permanente Total | 584€ |
| Incapacidad Temporal (1er mes) | 627€ |

* Importe aproximado. Consúltanos en tu caso las cifras que te corresponderían en función de tus circunstancias personales y familiares.

Con Autónomo Power consigues seguridad y tranquilidad para tu futuro combinando diferentes seguros. Proteger a tu familia y protegerte tú es más fácil y más económico.

**UNA COMBINACIÓN PERFECTA**

VIDA

BAJA DIARIA

ACCIDENTES

PLAN PROTECCIÓN AUTONOMÍA PERSONAL

CONFIGURABLE
Si lo deseas puedes cubrir además las prestaciones de VIUDEDAD, ORFANDAD e INCAPACIDAD.

AHORRAS PARA TU FUTURO
Si lo deseas puedes incorporar un Plan de Pensiones o de ahorro sistemático que mejor se adapte a ti.

**Consulta tus opciones y no dejes pasar esta oportunidad**

- Oferta exclusiva para la contratación del Pack Autónomo
- No acumulable a otras ofertas promocionales
- Exclusiva para colegiados y colegiadas
- Oferta válida **hasta el 30 de junio**

cmb bizkaiko medikuen elkargoa colegio de médicos de bizkaia SEGURMEC ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.U. CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.U.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

segurmec@cmb.eus
944 354 600

surne seguros & pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1. 48008 Bilbao. T. 94 479 22 00

SAN SEBASTIÁN
Easo, 7 · 1ºD. 20006 San Sebastián. T. 943 430 798

www.surne.es



# EL SÍMBOLO DE LA FISIOTERAPIA

### Reconocimiento

Este símbolo reivindica la labor de los más de 66.000 fisioterapeutas titulados que contribuyen a cuidar de la salud de todos.

### Contra el intrusismo

Los fisioterapeutas debemos identificarnos y marcar distancia frente a pseudo-profesionales que dañan la imagen del sector y perjudican al paciente.

### Confianza

El paciente que acuda a un centro identificado con El Símbolo de la Fisioterapia tendrá la seguridad de ser atendido por fisioterapeutas colegiados con una formación íntegra.

### Profesionalidad

Solo podrán obtener el distintivo aquellos fisioterapeutas que estén colegiados y cumplan con unos estándares de calidad avalados por el Consejo General.

## La importancia de un símbolo

La fisioterapia basa su actividad en valores como la experiencia, la profesionalidad, la responsabilidad, la calidad de los servicios o las atenciones a las personas que confían su salud a ella.

Necesitamos un símbolo que asocie a nuestros centros de fisioterapia todos estos valores, que englobe nuestra filosofía y la muestre ante nuestros pacientes y el resto de la sociedad. Esto es el proyecto «El Símbolo de la Fisioterapia».